

# KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2020ko apirila / 304. zenbakia

[www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)  



## KALEAK HUTSIK

Etxean gelditu eta erantzukizunez jokatzeko garaia da Koronabirusari aurre egiteko



» TXARO MARTINEZ / Oñatiko osasun zentroko zuzendaria

## "Gogoratu eta azpimarratu nahi nuke etxean gelditu behar dugula eta ez garela atera behar, behar beharrezkoa ez bada, eta besteekiko kontaktuak saihestuz betiere"

COVID-19 birusak eragindako osasun larrialdi egoera gogorra izaten ari da denontzat eta, bereziki, osasun arloko langileentzat. Ahalegin fisiko eta psikiko handia egiten ari dira herritarrei ahalik eta zerbitzu egokiena ematen jarraitzeko. Osasun arreta kudeatzeko modua aldatu behar izan dute, kutsatze arriskua murrizteko. Horien berri, eta medikuaren beharra izanez gero, nola jokatu behar dugun azaldu digu Oñatiko osasun zentroko zuzendari Txaro Martinezek.

**Atzeratu daitezkeen kontsulta presentzialak bertan behera uztea erabaki du Osakidetza. Osasun zentrora ez joateko eskaria egin diezue herritarrei. Nola jokatu behar du medikuaren beharra duen herritarrek?** COVID-19 birusak eragindako egoera berezia dela eta, lehen mailako osasun arreta kudeatzeko modua aldatu dugu, herritarrek eta osasun langileak babesteko helburuarekin.

Kontsulta medikoa behar duen herritarrek telefonoz deitu behar du osasun zentrora (943 035 430). Hitzordua ematen zaio, eta handik gutxira bere medikuak edo erizainak deitzen dio. Ahal bada, telefono bidez konpontzen da, eta beharrezkoa bada, bere ohiko medikuaren kontsultara etortzeko esaten zaio.

Arnasbideetako patologia akutua baldin badauka, eta aurrez aurreko balorazio bat egitea

komeni bada, edo laginak hartu behar bazaizkio, anbulatorioko kontsulta berezi batera etortzeko eskatzen zaio pazienteari, eta bertan artatzen du behar bezala babestutako mediku batek.

Horrela jokutzen dugu, kontsulta goizeko 8:00etatik 15:00etara bitartean baldin bada.

Arratsaldez bada (15:00-20:00), eta medikuak ikusten badu arnasbideen arazoa duen herritar batek balorazio presentziala behar duela, eta ezin dela hurrengo egunera atzeratu, orduan Arrasateko ospitalean horretarako egokitu den kontsulta espezifikora bideratzen da.

### Ze protokolo jarraitzen duzue gaixoak artatzeko?

Paziente batek medikuaren edo erizainaren beharra baldin badu, eta ezin bada gerorako utzi, eta ezin badu anbulatoriora etorri, orduan osasun langilea joaten da bere etxera. Arnasaren patologia akutua duen paziente bat bada, mediku talde espezifikoko bat joaten da, behar bezala babestuta.

Kasu batzuetan, anbulatorioko aparkalekuan egiten ari gara *Sintrom*-aren kontrol probak, kortexez etortzen diren pazienteei, osasun zentroan sartu beharrik ez izateko, eta kutsatzeko arriskua gutxitzeko, betiere aurrez erizainekin adostuta.

### Nola jokatu behar dugu larrialdietan, edo Oñatiko osasun zentroa itxita dagoen orduetan?

Oñatiko anbulatorioa itxita dagoen orduetan (iluntzeko 20:00etatik hurrengo goizeko 08:00ak arte, lanegunetan, eta jaieguna bada, eguneko 24 orduetan) Arrasateko anbulatorioa da erreferentziazko zentroa. **943 035 250** zenbakira deitu behar da, eta bertan esango digute zer egin, sintomatologiaren arabera; beraiek baloratuko dute, pazienteak aurrez aurreko balorazioa behar duen, anbulatorioan bertan, edo, beharrezkoa bada, Arrasateko Ospitalean.

Ospitaleko larrialdi zerbitzuak beti bezala funtzionatzen du,



### LARRIALDI ZERBITZUAK

**Arrasateko ospitaleko larrialdi zerbitzuak beti bezala funtzionatzen du, baina ahal dela, ez da komeni erabiltzea, benetako larrialdia ez bada**

baina, ahal dela, ez da komeni erabiltzea, benetako larrialdia ez bada, edo hurrengo egunean osasun zentroan kontsultatzeko moduko patologia arina baldin bada.

### Koronabirusaren sintomak baditugu, zer egin behar dugu?

Ororen gaintetik, lasaitasunez jokatu, baina erantzukizunez, eta ahal den neurrian, geure burua isolatuz, eta osasun zentroarekin harremanetan jarri telefono bidez (ordutegitik kanpo bada, lehen aipatutako zenbakira deituta).

Oso garrantzitsua da segurtasun distantzia mantentzea, ahoa eta aurpegia eskuekin ez ukitzea, eta ukitzen baditugu, eskuak berehala garbitzea, beste objektu edo pertsonarik ez ukitzeko kutsatutako eskuekin.

### Osakidetza ematen ari den datuen arabera, oraingoz ez dago kutsatutako jende askorik Oñatin, baina erne egotea eta alertari eustea komeni da, ezta?

Noski. Ezin gara inola ere erlaxatu. Ez baditugu gomendatutako garbitasun neurriak eta agindutako isolamendu neurriak errespetatzen, birusa hedatuz joango da eta paziente gehienek sintomatologia arina izango badute ere, kasu larriak eta heriotzak ere gertatuko dira, eta ez dago jakiterik nori egokituko zaion. Adineko jendeak arrisku handiagoa du, baina gazteagoen artean ere gertatzen ari dira konplikazioak.

Epidemia ia guztietan adineko jendeak izan ohi du arazo gehien, baina demostratuta dago batez ere jende gazteak kutsatzen dituela.

## Zer egin behar dugu medikuaren beharra baldin badaukagu?

► LANEGUNETAN (08:00 - 20:00)

**943 035 430**

Oñatiko osasun zentroa zabalik dagoen orduetan bertara deitu behar dugu telefonoz. Handik gutxira deituko digute etxera.

► LANEGUNETAN (20:00 - 08:00)  
ETA JAIEGUNETAN (24 orduak)

**943 035 250**

Oñatiko Osasun Zentroa itxita dagoen orduetan, telefono zenbaki honetara (Arrasateko anbulatorioa) deitu behar dugu.

**Kasu batzuetan anbulatorioko aparkalekuan egiten ari gara Sintrom-aren kontrol probak, kotxez etortzen diren pazienteei**

**Eskerrak eman nahi dizkiet oñatiar guztiei anbulatorioko osasun arretan egin behar izan ditugun aldaketak ulertzeagatik**

### Nola dago animoz eta indarrez Oñatiko osasun zentroko lan-taldea?

Bizi dugun egoera hain berezi honetara moldatzen ahalegin-tzen ari gara, herritarrei ahalik eta zerbitzu egokiena ematen jarraitu ahal izateko. Guretzat ahalegin handia izaten ari da, bai fisikoa eta bai psikikoa ere, baina jakitun gara hau dela gure lana.

### Zer esango zenieke herritarrei?

Berriro gogoratu eta azpimarratu nahi nuke etxean gelditu behar dugula eta ez garela atera behar, behar beharrezkoa ez bada, eta besteekiko kontaktua saihestuz beti ere.

Ahal dela, ez dugu joan behar pertsona nagusiak bisitatzera beraien etxera.

Ez dakigu noiz amaituko den egoera hau. Oraingoz ez dago erantzunik. Beraz, bien bitartean agintarien esanei kasu egin behar diegu.

Eskerrak eman nahi dizkiet oñatiar guztiei beraien laguntzagatik eta osasun arretan egin behar izan ditugu aldaketak ulertzeagatik. ■

## Debagoieneko ospitalean ere neurri bereziak

Debagoieneko ospitalean ere unean uneko beharrei erantzuteko egokitzapenak egiten ari dira, bai antolakuntzan maila eta baita zerbitzu eta baliabideei dagokienez ere.

Hala, bertako erditze gelak itxi egin dituzte, eta erditzera doazen emakumeak Zumarragako ospitalera bideratzen dituzte, eta baita ingresatu beharra duten haurrak ere.

Urgentzia kirurgikoetarako oheez gain, ospitalean 88 ohe-mediko dituzte ospitalizazio unitateetan, bi solairutan banatuta; baina beharra izanez gero, ospital zaharreko eraikinean solairu bat egokitzeko aukera dute mahai gainean.

Pediatría arloko zerbitzua Arrasateko ospitalean zentralizatu dute, betiere tokian tokiko anbulatorioan umearen egoeraren lehen balorazioa egin eta gero.

Horrez gain, etxeko osasun arreta eskaintzen duten bi talde berri jarri dituzte lanean. ■





## HIRU HAMARKADA BAINO GEHIAGO

### EUSKAL SUKALDARITZA ONENA ESKAINTZEN

MENU AUKERA ZABALA, OSPAKIZUN BEREZIAK, EZKONTZAK ETA EDDZEIN MOTAKO BAZKARI EDO AFARIAK EGITEKO INGURUNE LILURAGARRIA.

SUKALDE ZERBITZUA ERABERRITU DUGU. EZ GELDITU PROBATU GABE!

T. 943 78 19 56 | [www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)

Etxe-Aundi

"Bela - Interea"

**Bi aste luze igaro dira osasun-larrialdi egoera ezarri zenetik. Nola ikusten duzu egoera?**

Ez dut ukatuko, egoera zaila da guztiontzat. Norberaren mugikortasuna asko mugatzeaz gain, etxeko elkarbizitza egoera berri honetara egokitzea tokatu zaigu. Eta hori gutxi balitz, komertzio txiki, denda eta enpresa gehienek eten egin dute beraien aktibitatea. Honek ere norberarentzat izugarrizko ziurgabetasuna dakar, ez baitakigu noiz arte iraungo duen, zer gertatuko den bihar, ze dekretu plazaratuko diren etzi...

Hala ere, egoera zailenek norberaren alderik onena ematen dutela ere esaten da, eta kasu honetan ere hori gertatzen ari dela esango nuke. Oro har, herritarrak jakitun gara egoera honetan ere badaudela sektore batzuk inoiz baino behar gehiago dituztenak, eta hauei laguntzeko prest azaldu dira asko. Esan daiteke indartzen dabilela komunitate izaera.

Egoera zaila da, baina ahalik eta irakurketa positiboena egingo nuke; aste batzuren buruan poliki-poliki ohiko jardunera bueltatzen hasiko gara, baina bide honetan egin ditugun harremanek, sareek... iraun egingo dutela espero dut.

**Udal mailan osasun krisiaren jarraipena egiteko mahaia eratu zenuten. Nortzuk osatzen dute eta zein dinamika jarraitzen duzue?**

Hala da, hau ere egokitzen joan behar izan dugu, hasiera batean krisiaren jarraipen mahaia zen baina gero emergentzia dekretatu zenean, gure emergentzia planean jasota dagoen mahaia osatu genuen. Azken finean, egoera honen aurrean hartu beharreko erabakiak ahalik eta ikuspegi zabalarenekin hartzea komeni baita. Mahaia honako hauek osatzen dugu: Idazkaria, Udaltzainburua, Zerbitzuetako teknikaria, pertsonal teknikaria, oposizioako bozeramailea, gizarte zerbitzuetako zinegotzia, zerbit-



**IZARO ELORZA ARREGI** / Alkatea

## "Eskerrak eman nahi dizkiet herritarrei, erakusten ari diren arduragatik eta laguntzeko prestutasunagatik"

Bizi dugun egoera bereziaren aurrean udalak hartu dituen neurriez hitz egin dugu Izaro Elorza alkatearekin

zuetako zinegotzia eta alkatea. Bestalde, Emakumeen Kontseilua ere ari da egoera aztertzen eta mahaiari ekarpenak egiten.

Jarraipena era guztietara egin dugu, presentzialki, telefonoz kontsultak eginda eta telematikoki. Bestetik, Gobernu Taldeko kideok egunero egiten ditugu bilerak, eguneko berrikuntzak jakinarazteko, har litezkeen era-

bakiak aztertzeko, proposamen berriak lantzeko... Finean, biharko egoera ez da gaurkoaren berdina izango. Aldian aldiko erabakiak, gomendioak, proposamenak... egin behar izatera garamatza horrek.

**Herri mailan hainbat erabaki hartu dituzue kutsatze arriskua murrizteko helburuarekin. Zein balorazio egiten duzu?**

Herritarren segurtasuna bermatze aldera eta kutsatze arriskua murriztearren, hasiera hasieratik hartu genuen erabakia jendea pilotzen zen eraikin, zerbitzu eta ekintzak bertan behera uzteko. Hortik ordu gutxira emergentzia egoera dekretatu zen, eta honek ere zenbait neurri gehiago hartzea eraman gintuen. Egunero irteten dira dekretu berriak eta horietara egokitzen joan gara.

Etxe barruan ere, udal mailan, badira pare bat aste hasi girela telelana prestatzen eta gaur egun langile gehienak horrela dabilta lanean.

Une oro saiatu gara herritarrak informatzen zerbitzuen aldaketetaz, hartu beharreko neurriez, gomendioez... Uste dut oro har jendea kontzientziatuta dagoela eta egoera onartzen duela, neurri eta gomendioei kasu egiten zaiela eta, beraz, ondo jokatzeko gaitzala.

**Udal administrazioari dago-kionez, zergen ordainketa atzeratu duzue irailaren 15era arte, eta bestelako tramite eta izen-emateen epemugak ere etenda geratu dira, salbuespen egoera hau gainditu arte. Beraz, alde horretatik ere lasai egon daitezke herritarrak.**

Emergentzia egoera honetan epe administratiboak eten egiten dira, eta beraz salbuespen egoera amaitzean hasiko da berriz kontagailua martxan. Bestalde, zergen ordainketa atzeratu eginda eta beste neurri edo/eta laguntza batzuk ere aztertzen ari gara jakitun garelako garai hauek edo datozenak zailak izan daitezkeela, eta modu batera

edo bestera herritarrak duten zama hori arintzea dugulako helburu.

### Fruta eta barazki azoka kiroldegian egitea erabaki duzue. Zein da balorazioa?

Fruta, barazki eta elikagaiak lehentasunezko produktuak diren aldetik, beraien salmenta onartuta dago, beraz guk garbi ikusten dugu, supermerkatu eta janari dendak zabalik badaude, gure baserritar eta nekazariak ere eskubide berdina izan beharko luketela beraien produktuak saltzen jarraitzeko. Honek gainera jendea leku bakar batean pilatu baino, eraikin ezberdinetan sakabanatzea ere badakar.

Hau posible izateko, neurriak hartu dira, beti ere saltzaile eta erosleen segurtasuna bermatzeko. Horretarako, azoka kiroldegira eraman da, han aforoa eta sartu irtenak kontrolatu ahal direlako. Espazioa askoz handiagoa da eta, beraz, postuen arteko distantzia handiagoa izatean, segurtasuna bermatzen da.

Egokitzapen batzuk egin ditugu ilarak eta itxaronaldiak murrizteko eta, beraz, gure balorazioa positiboa da, batez ere erosle eta saltzaileengandik ere horixe bera jaso dugulako.

### Beharrezkoa ez bada, etxetik ez irteteko agindua dugu herritarrok. Betetzen ari al gara?

Orokorrean bai, egunak pasa ahala, kontzientziario maila handiagoa da eta, beraz, gero eta jende gutxiago ikusten da gure kaleetan. Hala ere, jakitun gara zaila egiten dela etxean gertzea eta gomendio hauei jarraitzea. Udaltzainen lana ere ez



### HERRITARREN JOKABIDEA

Uste dut, oro har, jendea kontzientziatuta dagoela, neurriak eta gomendioak kasu egiten zaiela eta, beraz, ondo jokatzeko gaitzela

da erraza, segurtasuna bermatu behar dute eta baita herritarrei gogorarazi zer egin ahal den eta zer ez. Baina, esandakoa, goraka doa jendearen kontzientziario maila.

### Beharra duten herritarrei laguntzeko boluntario sarea osatzeko deia egin zuen udalak. Zer moduzko erantzuna izan du? Funtzionatzen ari al da?

Erantzuna guztiz positiboa da, jende asko agertu baita prest laguntzeko. Horretarako e-posta helbide bat eta telefono zenbaki bat jarri ditugu martxan, boluntario gisa eskaintzeko edo laguntza eskatzeko. Norbaitek beharren bat badu, bertara deitu dezake.

Gaur gaurkoz, askoz gehiago izan dira laguntzeko prestutasuna erakusteko jaso ditugun



### UDAL MAILAKO NEURRIAK

Zergen ordainketa atzeratu egin da, eta beste neurriak eta laguntza batzuk ere aztertzen ari gara, jakitun garelako datozen garaiek zailak izan daitezkeela

mezu eta deiak, laguntza eskatzekoak baino. Honek neurri batean erakusten digu Oñatiko herritarrak bestela ere antolatu direla etxekoei edo aldekoiei laguntzeko. Denbora aurrera doan heinean, baina, eskaerak ere goranzko joera izango dutela aurreikusten dugu.

Hala ere, Udaleko langileak sektoreka herritarrei deia ari dira, proaktiboki, nola dauden jakin, sare honen berri eman eta laguntza eskainiz. Jakitun gara nahiz eta sareetan, egunkari eta irriti bidez iragarri, herritar guztiengana ez garela iritsi, eta beraz saiakera egiten ari gara banan-banan deika, ahalik eta jende gehienarengana iristeko. Hori horrela, zerrenda ezberdinak ditugu eskuartean, 70 urtetik gorako herritarrak, bakarrik bizi direnak, guraso bakarreko familiak, etab. Dagoeneko, 1.800 inguru oñatiarrek jaso dute udalaren deia, eta horietako hainbat ari dira zaintza-sareko laguntza jasotzen.

Dei hori bera egitea ere askok eta askok eskertzen dute. Hainbaten kasuan, esaterako, modu horretan, bere bakardadean norbaitekin berba egiteko aukera dute –hala helarazi dигute-. Hori bera ere boluntario saretik eskaintzen den gauza bat da, berba egiteko behar hori asetzeko. Kontutan izan behar dugu ez dela laguntza fisikoa soilik behar, konpainia egitearena ere badago, eta beraz hemendik animatzen ditut herritarrak lasai asko deitzera. Gura duenak, **688 886 519** telefono zenbakia- ren bestaldean aurkituko gaitu, 9:00etatik 14:00etara. **saretuz@onati.eus** e-posta helbidera ere idatz daiteke. (Hurrengo orrira).

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)



Jaione San Miguel Ugarte

**MAPFRE**  
OÑATI



**Denontzat da berezia eta zaila egoera hau, baina ba al da bereziki kezkatzen zaituen kolektiborik?**

Denontzat da zaila, lehen esan bezala denok ari baikara egoera berri honetara egokitzen. Beraz, udaletik lanean ari gara ahal dugun herritar gehienei laguntza emateko. Alde batetik, aldizkari honekin batera, eskuorri bat banatu dugu. Bertan, informazioa eskuratzeko edo laguntza eskatzeko dauden bide ezberdinetarako, eta behar ezberdinetarako, e-posta eta telefono zerrenda bat dago. Orokorrean, bakarren bat salbu, urte osoan martxan daudenak dira.

Eta bestetik, nola ez, boluntario sarearen bidez eta Udaleko langileen deien edota jarraipenaren bidez, zaintza berezia eta jarraipen berezia egin nahi diegu adinekoei, bakarrik bizi direnei, indarkeria jasaten duten emakumei, zaintzan ari diren egoiliarrei, esku-hartzea behar duten adin txikikoei... Jakitun baikara hauen egoera oraindik eta zailagoa dela.

**Udal gobernuaren jarduna (batzordeak, osoko bilkura....) zertan dira? Koronabirusaren krisian zentratuta zaudete, ala bestelako gaiekin ere badiharduzue?**

Momentu hauetan gure esfortzu handiena egoera honi aurre egitera daukagu bideratuta. Egokitzen dihardugu: batetik, herritarren eskaintzen zaien zerbitzuak egokitu behar direlako; eta, bestetik, udal langileen eta barruko funtzionamendua moldatzea dagokigulako. Hala ere, ahal den neurrian, batzuk telelanean, eta beste batzuk presentzialki -lanak



Gobernu taldeak telematikoki egindako batzar bateko irudia

**ELKARZAINZAN**

**Udaleko langileak herritarrei (70 urtetik gorakoei, bakarrik bizi direnei, guraso bakarreko familiei...) deika ari dira, proaktiboki, nola dauden jakiteko eta laguntza eskaintzeko**

horrela behartuta-, lanean segitzen dugu. Esaterako, martxan jarraitzen dute batzordeek, osoko bilkurak... Hori bai, dagoeneko hasiak gara bideokonferentziaz egiten. Bide batez, aprobetxatu gura nuke lan presentzialak eta ezinbestean egin beharrekoak eskertzeko, eta baita egoera honen aurrean lehentasunezko bihurtzen diren lanetan ari direnei ere.

**Nola irudikatzen duzu krisi hau gainditu ondorengo eguna?**

Egia esan ez naiz horretan gehiegi pentsatzen jarri, buru-belarri gabiltza eta zerbitzu guztiak egungo egoerara moldatzen eta gero etorriko dena aurreikusten, era guztietako eta beharrezko laguntzak edo zerbitzuak mar-

txan izateko. Ez dut uste ordea egun batetik bestera pasatuko garenik, progresiboa izango dela uste dut nik, baina, berriz ere, lan askoko egunak izango direla irudikatzen dut.

Bestalde, nik uste egun hauetan gure etxeetan denetarik gertatzen ariko dela, batzuek familian elkarrekin egoteko aprobetxatuko dute, beste batzuei berriz bakardadean egunak luze egingo zaizkie, baina esango nuke denok, modu batera edo bestera, aldekoekin balkoirik-balkoi, telefonoz edo beste bide batzuetaz baliatuz harreman berriak egin ditugula, eta egunerokotasunean konurtatzen ez garen behar horiek, ezkutuan daudenak, egun hauetan begi bistakoak direla. Espero dut, honen ostean ere, besteak beste eraikitzen gabiltzan harreman horiek, elkartzaintzarako sare hauek, mantentzea eta urrats berriak ematea.

**Mezurik herritarrentzat?**

Egun hauetan gure artetik joan zaizkigun herritarren familiei doluminak eta besarkada bero bat ematea, bestela ere momentu zailak izanda, egoera honetan are gogorragoak egiten baitira. Baita animoak ematea gaixo larri egonda, bakardadean, isolaturik egon behar duten pertsona eta beraien familiei, larritasun eta ezintasun momentuak bizitzten ari dira eta.

Eta eskerrak ematea herritarrei erakusten ari diren arduragatik, laguntzeko prestutasunagatik, bai herriarekiko eta baita gurekiko ere. Denok gara beharrezko honi aurre egiteko, eta bide erraza izango ez den arren, elkarrekin lortuko dugula. ■

**IRAKURKETA POSITIBOA**

**Espero dut honen ostean mantendu egingo ditugula egun hauetan sortzen gabiltzan harremanak, elkartzaintzarako sareak...**

**COINBROKER**  
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

943 089 006 | oinati@coinbroker.eus  
www.coinbroker.eus

**NI moda**

**MODA BEREZIA**

Kale Barria, 12  
Tel. Faxe: 943 71 62 40

# INFORMAZIO ETA AHOLKULARITZA ZERBITZUA

Koronabirusaren krisiaren aurrean, autonomo eta mikroenpresei zuzendutako zerbitzua eskaintzen hasi da udala

Koronabirusaren ondorioz bizi dugun konfinamendu egoerak bereziki erasan die zerbitzuen sektorean ari diren autonomo eta profesionali. Horren aurrean, Madrilgo zein Gasteizko gobernua eta bestelako erakunde

publikoak ari dira prestazio, hobari eta bestelako laguntza neurriak onartzen, eta hain zuzen ere, horien inguruko zalantzak eta galderak argitzea eta aholkua ematea da udaleko Sozioekonomia departamentuak abian jarri duen zerbitzu honen helburua.

Udaleko Sozioekonomia sailaren buletin digitalean (QR kodean) ikus dezakezue orain arte argitaratu diren laguntza-neurrien inguruko informazioa. Edozein zalantza izanez gero, deitu **943 003 198** zenbakira edo idatzi mezua [enplegu@onati.eus](mailto:enplegu@onati.eus) helbidera.



**943 003 198 / [enplegu@onati.eus](mailto:enplegu@onati.eus)**

## KORONABIRUSA

COVID-19AN POSITIBO EMAN DUTEN EDO BERROGEIALDIAN DAUDEN PERTSONAK DITUZTEN ETXEETAN ZABORRAREN ERABILERARI BURUZKO GOMENDIOAK

- 1. poltsa behar bezala itxita** 2. poltsan sartuko da **gelaren irteera ondoan**. Bertan, zaintzaileak erabiltako eskularruak eta maskara ere sartuko dira, eta gelatik irten aurretik behar bezala itxiko da 2. poltsa.
2. poltsa hau errefusa zatikiari dagokion **etxeko zabor poltsa orokorrean (3. poltsa)** sartuko da, etxeko gainerako hondakinekin batera.
3. poltsa hau, behar bezala itxita, **edukiontzi grisera botako da**, errefusa zatikiari dagokiona.

**4. Eskuak ura eta xaboiarekin garbitu.**

**5. Restos**

## Hainbat gela hustu dituzte egoitzan, prebentzio neurri gisa

Foru Aldundiko Gizarte Politikako departamentuak emandako prebentzio protokoloak aintzat hartuz, zenbait gela hustu egin dituzte San Martin egoitzan, egoiliarren batek positibo emanez gero isolamenduan mantendu ahal izateko. Oraingoan, zorionez, ez da halako kasurik eman. Bestalde, Zubillagako suhiltzaileak egoitzako gune komunak eta inguruak desinfektatzen aritu dira, eta egoiliarren eta familien arteko hartu-emanak hobetzeko bitartekoak ere zehazten ari dira beste protokolo batean.



**Gualbi**  
asesores

*Bezeroen beharrei erantzuteko prest!*

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea  
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza  
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6  
T.: 943 781 648  
[onati@gualbiasesores.com](mailto:onati@gualbiasesores.com)  
-  
[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)



# "Pena handia izango litzateke Oñati artzain txakur txapelketa barik geratzea"

**JOXE MARI BENGOA**

Bengoak 34 urte daramatza Oñatiko artzain txakur txapelkea antolatzen, eta erreleboa eskatzen du

**P**ublikoki eskari bat egitea erabaki du Joxe Mari Bengoak: 34 urte luze daramatza Oñatiko artzain txakur txapelketa antolatzen, eta lekukoa emateko ordua iritsi da. Laguntzen jarraitzeko prest dago bera, baina ardurak hartuko dituen beste norbait edo norbaitzuren ondoan betiere. Pena handia litzateke, dio berak, hain historia luzea eta aberatsa duen txapelketa bertan behera uztea. Bizi dugun konfinamendu egoera hau gogoeta egiteko aukera egokia izan liteke, agian.

"Nik egiten dudana lana egiteko pertsona bat nahikoa da, baina pare bat lagun badira, hobe, eta hiru-lau laguneko taldea animatuko balitz, primeran" dio Bengoak.

Irailean jokatu ohi den Oñatiko txapelketa antolatzeaz gain, Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketen Antolakuntzaren barruko lanak daude, egin beharrekoen artean. "Euskal Herriko agrupazioan herrialde guztiak (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa) daude ordezkatuta, eta Oñatik bere aulkia du, nazioarteko txapelketaren antolatzaille garen aldetik" azaldu digu Bengoak. Urtean zehar bizpahiru bilera egiten dituzte, egutegia, araudia eta txapelketetan epaimahaikideek jarraituko dituzten irizpideak bateratu eta finkatzeko. "Agrupazioko kideok epaile lanak egin behar izaten ditugu, txandaka, txapelketetan".

Bestalde, Valentzia, Katalunia, Castelló, Andorra edo Osseja-n (Frantzia) antolatzen diren txapelketetara ere joan behar izaten du Euskal Herriko agrupazioko



## LAGUNTZEKO PREST

Lagunketako prest nago ni, baina ardurak hartuko dituen norbaiten edo norbaitzuren ondoan betiere

## HERRIAK ERABAKI

Udalak eta herriak erabaki behar dute Oñatiko artzain txakur txapelketari eutsi nahi dioten ala ez

ordezkaritza batek. "Herrialde horientzat Oñati da erreferentzia, Oñatiko txapelketara etortzen direlako; beraz, normalean neu joaten naiz Euskal Herriko agru-

pazioa ordezkatuz, hemengo artzainen batekin batera. Leku gehienetan *border collie* arrazako txakurra sartuta dagoenez, euskal arrazako txakurrak lanean ikustea asko gustatzen zaie, desberdina delako".

## LAN KARGA HANDIRIK EZ

"Ez da lan asko; ezta zaila ere" dio Bengoak. "Nik ez dut horregatik utzi nahi. Pittin bat gustatu egin behar zaizu ardien edo txakurren mundua, baina zaila ez da. Ni neu oso gustura ibili naiz urte hauetan guztietan. Harreman eta lagun asko egin ditut, bai hemen eta baita kanpoan ere. Harreman sanoak, onak. Eta hori ere baloratzekoa da, ezta? Niretako behintzat gauza ederra da hainbat lekutan atea zabalik edukitzea, eta lagunak".

Azken urteotan, gainera, konpetitzen ere ari da Bengoa, eta oso zaila da dena batera eramatea. Gipuzkoako txapelketa irabazi eta Oñatin lehiatu behar izan du, antolatzaille lanak utzi gabe. "Eta horrela oso zaila da. Txakurrarekin lana ondo egiteko askoz ere zentratuago egon behar duzu. Horregatik, nik uste dut beharrezkoa dela erreleboa,



jende berria sartzea eta haize freskoa ekartzea. Denon onerako izango da".

Oñatiko txapelketa antolatzeari ez omen da arazo handia. "Uste dut gauzak hobeto egin ditzakegula, baina, tira, egun horretarako Oñatiko elkartearen laguntza izaten dugu, udalak ere laguntzen digu ekonomikoki, eta moldatzen gara, hainbestean". Egia da azken urteotan asko jaitsi dela ikusle kopurua Oñatiko artzain txakurren txapelketan, baina horrek ez gaitu bereziki kezkatu behar, Bengoaren ustez. "Normala da; irailean ekitaldi aukera zabala egoten da, eta jendea banatu egiten da hara eta hona. Ez diogu begiratu behar jende kopuruari. Benetan gusatzen zaiona etorriko da. Gure ardura izan behar da txapelketa ondo antolatzea, eta jendea etorriko da".

#### HERRIAK ERABAKI BEHAR

Bengoaren ustez pena handia izango litzateke Oñati txapelke-

tarik gabe gelditzea 65 urteko ibilbidearen ostean. "Oñatiko txapelketak sona handia du hemendik kanpora, eta hainbat lekutan Oñati ezaguna da txakur txapelketari esker, besteak beste". Eta Oñatik txapelketa ez



#### ERAKUSLEIHOA

Oñatiko txapelketak sona handia du, eta Oñati ezaguna da leku askotan artzain txakur txapelketari esker

#### HERRIAK ERABAKI

Oñatik bihar erabakiko balu txapelketa bertan behera uztea, berehala hartuko luke beste herri batek

antolatzea erabakiko balu, berehala hartuko luke beste herri batek. Hori garbi dauka Bengoak.

Udal arduradunekin ere hitz egin du Bengoak behin baino gehiagotan. "Udala prest dago laguntzeko, baina ez da bere

lana txapelketa antolatzea, eta ni ere ados nago; herriak antolatu behar duen ekintza bat da, beste aktibitate asko bezala". Beraz, gogoeta edo hausnarketa egiteko garaia dela uste du Bengoak; "herriak erabaki behar du txapelketari eutsi nahi dion ala ez. Niri gogorra egingo litzaidake esatea, ez noala gehiago antolatzea eta dena bertan behera uztea. Nik ez dut hori nahi. Nik erreleboa nahi dut; errelebo naturala. Noiz arte jarraitu behar dut nik? Ez al dira lagun pare bat agertuko! Horiexek dira nire galderak eta kezkek".

Joxe Mari Bengoa 1986an sartu zen artzain txakur txapelketako antolakuntza taldean, herriko elkarteek (*Intersociedades*) bere gain hartu zutenean txapelketaren antolaketa, Reyes Korkostegi, Jose Maria Leturia, Manolo Irizar eta beste batzuen lanari jarraipena emanez. Urte hauetan zehar alboan izan dituen laguntzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkie Bengoak. ■

**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESCOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

DUAL LANERAKO GERTU!  
ERASITUBUS  
2020-2021  
PRAKTIKAK LANTEGIAN

**Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK**

**Eskaintza akademikoa**

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmh  
orientazio.lhm@mondragon.edu  
664 298 704 • 664 298 683

**Ate Irekien Jardunaldia**

**Maiatzak 30 (Larunbata) 11:00**

Iker Zubizarreta, Mekatronikako goi mailako heziketa zikloko 2. Mailako ikaslea:

**Zergatik aukeratu zenuen Mekatronikako heziketa zikloa?**  
Mekatronika industrialaren heziketa zikloa aukeratu nuen batik bat gaitegi zabala duelako, ez da gai konkretu batean zentratzen soilik eta eduki asko jorratzen dituela iruditzen zait. Horrek asko erakartzen nau.

**Zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan (MGEP)?**  
Oñatitik gertu dagoelako eta inguruko jendearekin hitz egin ondoren, erreferentzia onenak eman dizkidaten ikastetxea izan da. Inguruko enpresekin erlazio ona du ondorengo lan munduko bizitzari begira.

**Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, hau da, talde-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer nolako erronkak egin dituzue?**  
Burutu ditugun erronkak enpresen gaur egungo arazo edo beharrei erantzuteko izan dira. Horregatik makina edo sistemaren bat martxan jartzea izan da burutu dugun lana. Mekanizazio zentrorren bat, txapak tolesteko makinaren bat edo makina bat bere kontrol pantailarekin komunikaraztea (baita kontrol panel hau programatu ere).

**Nola baloratuko zenuke esperientzia hau?**  
Oso esperientzia aberasgarria izan da, asko lagundu dit pertsona eta baita langile bezala hazten etorkizuneko lan munduari begira. Bai talde lanean aritzeko bai beste zeharkako kompetentziekin ere.

**Dual programan ere parte hartu duzu. Zein enpresatan zaude? Zein motatako zeregina duzue?**  
2019ko ekainaren 10ean hasi nintzen DUAL ikasketak ereduarekin ULMA Packaging-en. Enpresa honen lan esparruak enbaltatu/enbasatzeko makinaren produktzioan datza. Eta egia esanda ez naiz esparru zehatz batean kokatu; makinatara produktuak eramateko karkoak, mota askotako azpi-konjuntioak, arrabolak... bezalako gauzak muntatzen ari naiz. Gustura nago eta gauza asko eta desberdinak lantzen, egia esan.

**Bukatzeke, zer eskaini dizu ENPRESA esperientzi honek?**  
Pertsonalki lan mundurako sarrera bikain bat eskaini dit eta, gainera, ikasten ari zarena gustuko duzun edo ez konturatzeko era onena da.

Mondragon Unibertsitatea | LABORAL | HETEL | Fp

# 2019ko likidazioa eginda, gastu eta inbertsioen berrantolaketa egin du udalak

Iazko ekitaldiko 13 milioi euroko gerakina txertatu du 2020ko aurrekontuan

2019ko ekitaldiari dagokion ekonomia balantzea onartu zuen udalbatzak martxoaren 26ko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko botoz, eta EAJren kontrako botoarekin.

2019ko likidazioak 13 milioiko gerakina utzi du. Gogoratu, 11 milioi euroko mailegua kontratatu zuela udalak (horietatik 3 milioi Oñatiko Ur Jauziak enpresari eta gainontzekoa finantza erakunde bati) kiroldegiko berritze lanei (8 milioiko aurrekontua) eta datozen bi urteetan egin asmo diren beste inbertsio batzuei aurre egin ahal izateko.

Hori guztia kontuan hartuz, 2020ko gastuak eta inbertsioak berrantolatzeari ekin dio udalak. Hala, iazko inbertsioetako diru-atala 2020ko aurrekontuetan txertatu du eta, gainera, zenbait diru partida igo eta berriak sortu ditu.

## AMORTIZAZIOA AURRERATU

Alde batetik, 8,5 milioi euro txertatu ditu aurtengo aurrekontuetako inbertsioen atalean, martxan dauden proiektuetarako, hala nola: kiroldegia berritu eta handitzeko lanak, Natur Eskolaren eraberritzea, eta Araotzeko eskola ostatu bihurtzeko obrak.

Horrez gain, ia 1,2 milioi euro



Udal gobernu taldea



**Arduraz egindako berrantolaketa izan da. 2020ko aurrekontuak nabarmenki hobetu dira iazko ekitaldiko gerakinarekin.**

IZARO ELORZA/ alkatea

bideratuko dira 2020ko aurrekontuetan adosturiko diru sailak igotzeko edo berriak sortzeko. Bestalde, urtebete aurreratuko da kiroldegiko maileguaren amortizazioa, 800.000 euroko diru saila horretara bideratuta. Horiez gain, 2,5 milioi inguruko

diru poltsa sortu du udalak, etorkizunean sor litezkeen inbertsio beharrei aurre egin ahal izateko.

Gastu eta inbertsioen berrantolaketa "arduraz" landutakoa izan dela adierazi du Iزارo Elorza alkatea. "2019ak gerakin positiboa utziko zuela aurreikusita, orain dela aste batzuk hasi ginen aukera berriak aztertzen, kontrasteak egiten, proiektu berrietarako aurrekontuak eskatzen, hausnartzen... Kiroldegikoa bezalako obra handi bat esku artean dugunez, ardura handiz jokatu behar dugu. Tartean, 2,5

### GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



**653 70 45 47**  
Oñati

**PINTURAS  
URBIA  
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

## AURREKONTU-SAIL BERRIAK

Hona hemen 2020ko aurrekontuetan sortu diren diru partida berrietako batzuk:

- Azkoagainen aldagela modularrak **64.000 €**
- Energia berriztagarrien bidean urratsak emateko **50.000 €**
- Azpiegitura teknologikoen hedapena **50.000 €**
- Santxolopetegi auzoan bidegorria **55.000 €**
- Auzoetako inbertsioen diru saila handitzeko **30.000 €**
- Laneratze eta gizarteratze beharren azterketak **12.000 €**
- Ekonomia sozial eraldatzaileko egitasmoak **10.000 €**
- Oñatzen 50. urteurrena **14.000 €**
- Danborradarako materiala **12.000 €**
- Desfibrilagailu berriak **10.000 €**

milioi euroko poltsa sortu dugu etorkizuneko inbertsioetarako, Olaiturriko proiekturako, edo martxan diren bestelako obretan sor litezkeen hobekuntza proposamen berrietarako, besteak beste".

## KONTU-SAIL BERRIAK

Alor ezberdinak kontuan izanik,

etorkizuneko urratsak emateko baliagarri izan daitezkeen azterketak egiteko kontu-sailak sortu ditu udalak. Hor daude, esaterako, hirigintza proiektuen azterketa, ekonomia sozial eraldatzaileen bueltako egitasmoak (10.000 euroko diru partida), zein laneratze eta gizarteratze beharren azterketak (12.000€). Horrez gain, energia berriztagarrien bidean urratsak ematen segitzeko asmoa berretsi du udalak, 50.000 euroko partida sortuz. Bestetik, gardentasun estrategia lantzeari ekin dio udalak (10.000€), eta partida berriak sortu ditu danborradako materiala eskuratzeko (12.000€), Oñatzen 50. urteurrenako ospakizunetarako (14.000€), azpiegitura teknologikoen hedapenerako (50.000€) eta desfibrilagailu berriak jartzeko (10.000€).

Herriko azpiegiturak hobetzen ere jarraituko du udalak. Hala, Azkoagain futbol zelaiaren birgaitzeari loturiko partida handitu du (64.000 euro, eraikin zaharra bota eta aldagela modularrak jartzeko). Jubilatuen etxea, Gaztelekua eta Eltzia hobetzen segitzeko diru partidak ere handitu dira, eta landa auzoetako inbertsioetara 2020ko aurrekontuan aurreikusitakoa baino 30.000 euro gehiago bideratuko dira. Gainera, 55.000 euroko diru saila sortu da Santxolopetegi auzoan bidegorria egiteko.

Alkatea "gustura" azaldu da egindakoarekin. "Proposamen landua eta osoa daukagu esku artean, eta 2020ko udal aurrekontuak nabarmenki hobetu dira 2019ko ekitaldiko gerakinarekin. Ez genuen alor bat bera ere bazterrean utzi nahi, eta lortu dugulakoan nago". ■

## Koronabirusak eragindako krisiari aurre egiteko neurriak eskatu ditu EAJk



2019ko likidazioa eta kreditu-txertaketa espedientearen aurkako botoa eman zuen EAJk martxoko plenoan, gobernu taldeari elkarlanerako borondaterik ez duela leporatu ostean. "Martxoaren 13an banatu zeniguten dokumentazioa, eta martxoaren 14an komunikabideetan kaleratu zenuten nola egingo duzuen 2019ko likidazioaren banaketa, oposizioaren iritzia kontuan hartu barik" adierazi zuen Ainhoa Galdos bozeramaleak.

Kiroldegiko maileguaren amortizazioa urtebete aurreratzea ere kritikatu zuen EAJk. "2021erako aurreikusita bazegoen, ez zaigu logikoa iruditzen aurten ordaintzen hastea, bizi dugun pandemiak ekarriko duen krisi sozioekonomikoa kontuan hartuz, eta udalaren diru sarrerak dexente gutxituko direla ikusita. Panorama txar horrekin, ezin dugu ulertu nola erabaki duzuen mailegua amortizatzen hastea".

Jon Kepa Gerrikagoitiak (EAJ) gaineratu zuen Covid-19aren eragina handia izango dela ekonomian, eta udalak bere esku dauden tresna guztiak aktibatu beharko dituela: neurri fiskalak zerga zama arintzeko (itxita dauden negozioei hondakinen tasa etetea, terrazen lur okupazioagatiko tasa ez kobratzea, %75eko hoberia OHZ eta JEZ zergetan...) eta dirulaguntza lerroak (kontsumoa aktibatuzko gastu bonoak, udalak %10 bere gain hartuta). Neurriak arin eta azkar abian jartzea eskatu zuen.

EH Bilduren izenean Xabier Igartuak adierazi zuen, kreditu osagarri gisa sortu duten 2,5 milioiko diru poltsaren zati bat erabili ahal izango dela krisiari aurre egiteko. Udal langileen segurtasuna tele-lanaren bitartez ziurtatu ondoren, krisiari aurre egiteko neurri posibleak aztertzen hasita daudela azaldu zuen. "Foru aldundiak eskainiko dituen laguntzak aztertuko ditugu, haien osagarriak jartzeko" gaineratu zuen. ■

# CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

# Gezalaga Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com



## Olaiturrin estalkia eraikitzeko baimenak lortu ditu Udalak

► Jaurlaritzako Ingurumen eta Kultura sailek aldeko txostena eman dute ► Lanak ez dira hasiko kiroldegiko obra amaitu arte

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Kultura sailen aldeko txostenak jasota, udalak argi berdea dauka Olaiturri gunean estalkia eraiki ahal izateko. Gogoratu, erabilera anitzeko gune bat egokitu nahi dela bertan, kirola egiteko ez ezik, jaialdiak, herri bazkariak eta bestelako ikuskizunak ere antolatu ahal izateko.

Proiektua lizitaziora atera ostean, MLMR *Architecture Consultancy* eta *Garmendia Cordero Arquitectos* UTEari esleitu zitzaion proiektuaren idazketa eta lanen zuzendaritza, 2018ko uztailean.

Baina Oñatiko 'Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia'k (Foru Aldundiak 1992an onartutakoa) ez du aurreikusten aipatutako estalkia eta, hortaz, dokumentuaren aldaketa puntuala egiteko prozesua abian jarri zuen udalak.

Horretarako, Plan Berezian egin nahi den aldaketa puntualaren zirriborroa igorri zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen saileko zuzendaritzara 2018ko abenduan, aldaketak

eragingo duen inpaktuaren ebaluazioaren prozedura abiarazteko.

### INGURUMEN TXOSTENA

Ingurumen sailak bere txosten estrategikoa eman zuen 2019ko ekainean. Bertan dio ez dela aurreikusten Olaiturri gunean estalki bat eraikitzeak eragin esanguratsurik izan dezakeenik, eta hortaz, ez dagoela ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin beharrik.

Hala, Oñatiko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezian aldaketa zehatza egiteko agiriari hasierako onspena eman zion udalak iazko urriaren 10ean, eta espedientea jendaurrean ja-

rri zuen hogeit egunez (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hedadura zabalenerako egunkarietan berri eman ostean) herritarrek alegazioak aurkeztu ahal izateko. Jende agirian egon zen epean ez zen jaso inolako helegiterik.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak ere aldeko txostena eman zuen abenduan, ondorengo baldintzekin:

1.- Sancti Spiritus Unibertsitatearen, Agustinoen komentuen eta Jesusen Bihotzaren Elizaren babes eremua zaintzea, eraikin hauen atzealdeko fatxadetik estalitako azalera gehiago bananduz.

2.- Estalkiaren egitura ha-

rik eta arinena diseinatuko da, inguruaren begi—lerroa bermatu eta babestutako eraikinen elementu nagusien izaera errespetatuko duena.

3.- Estalkiaren alboak itxeko aukera debekatzen da, hiri espazio irekiaren izaera mantenduz

4.- Bereziki zainduko dira urbanizazioan erabiliko diren materialak.

Horrenbestez, Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezian aldaketa puntuala behin betiko izaeraz onartzea erabaki du udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren txostenean jasotako baldin- tzapean.

### ATZERATU EGINGO DA

Esku artean dituen inbertsio estrategikoak kontuan hartuz (kiroldegia berritzeko lanek 8 milioiko aurrekontua dute) inbertsioen berrantolaketa egi- tea erabaki zuen iazko udan, eta, besteak beste, Olaiturri estaltzeko proiektua (1 milioi) atzeratzea erabaki zen, kiroldegiko obra amaitu arte. ■



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 11 15 • [www.batuak.com](http://www.batuak.com)

Gure beharra baduzu,  
ondo-ondoan gaituzu.  
**Arrasaten.**

Hain ondo zaindu nahi  
zaitugunez, **Arrasaten bertan**  
ere artatuko zaitu Zuatzu  
klinikako espezialista-taldeak,  
20 urtetik gorako esperientzia  
duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.  
Jaio aurreko diagnostikoa.  
Bularretako patologia.  
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidea, 4 (bajo)  
20500 Mondragón  
943 792 018



[www.clinicazuatzu.com](http://www.clinicazuatzu.com)

# 'OinHerri, herri hezitzailea'

## ekimenarekin bat egingo du Oñatiko udalak

**H**erria bera subjektu hezitzaile moduan ulertzen dugu. Ildo horretan partaidetza eta erantzukidetasun printzipioetan oinarrituz, 'Oñati Herri Hezitzailearen' potentzialtasunak garatu nahi ditugu. Horixe irakur zitekeen EH Bilduk iazko hauteskundeetara aurkeztu zuen programan, eta norabide horretan aurrera egin asmoz, **OinHerri** proiektuarekin bat egitea erabaki du udalak, herri hezitzaileen sareko kide izatera pasatuz. Horretarako, Oñatiko udalak eta **OinHerri**-k elkarlanerako hitzarmena sinatuko dute datozen egunetan (osasu krisi egoera gainditu ostean). Udalak 4.000 euroko ekarpena egin beharko du urtean, eta, trukean, ikuspegi berdinarekin lanean diharduten bestelako herriekin esperientziak partekatzeak aukera izango du, eta **OinHerri**-k eskaintzen duen aholkularitza tekniko-espezifikoa jasoko du. Hitzarmenaren iraupena urtebetekoa izango da, baina automatikoki beste bi urtez berriztuko da, bi aldeetako batek hitzarmena bertan behera uzteko erabakia jakinarazi ezean.

### 'OINHERRI' EGITASMOA

2012an hasi zen mamitzen **OinHerri** proiektua, Andoainen. Haurren hezkuntza eta aisia beste modu batera egin zitekeela amesten zuten hainbat eragile elkartzen hasi ziren. Teoria eta praktika uztartuz, herrigintzatik, benetako parte hartzea bultzatuz eta balio hezitzaileak hedatzeko helburuarekin hainbat urrats eman dituzte, eta gaur egun hamalau eragilek osatzen dute **OINHERRI**ren talde eragilea, hala nola: *Hik Hasi pedagogia ekimena, Urtxintxa, Irrien Lagunak kluba, Txatxilipurdi, Aisiola ikastolen elkarteko aisialdi taldea, Tabakalera, Topagunea...*. Gogoeta eta ekoizpen kolektiboa egiten duen taldea da, herri hezitzaileak balioetan jantzi eta beraien esperientzian oinarritutako gidaritza eskainiz.

Zazpi kontzeptu edo irizpidetan oinarritzen da **OINHERRI** proposatzen duen hezkuntza eta aisia eredia ( ikusi ondoko taulan).

Oinarri horietatik abiatuz, **OINHERRI** hiru lan-ildotan mamitzen du bere proposamena:

- Teoria eta praktikaren arteko giltzaduraz gogoeta egiten duten liburuskak argitaratu eta formazioa eskaintzea.
- Jardunaldi zein mintegiak antolatzea
- Herri ezberdinetan **OinHerri**ren oinarri filosofikoak aintzat hartuko dituzten proiektu hezitzaileak sustatzea. (*Hurrengo orrira*).



**OinHerriko herri hezitzaileen sareko kide izateko ezinbestekoa da herrigintzako eragileek, hezkuntzakoek eta udalek batera jardutea**



Hezkuntza eta aisiarako  
**OINHERRI**ren  
**IRIZPIDE NAGUSIAK**

Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen **haurren kultura** aitortzea. Hori oinarri hartuta, haurrei **benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena** ematea, eurek eraikitako **aisia hezitzaile eta euskldunaren bitartez aniztasunean berdina eta parekide** izanez eta **ingurumen naturala eta kulturala** zainduz, **komunitate-sarea eta auzolana indartzea**, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak sortzea. ■



Ramon Irizar kalea, 3  
Tel: 943 71 61 60

✉ [etxian@etxian.net](mailto:etxian@etxian.net)  
[www.etxian.net](http://www.etxian.net)  



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)

## HERRIEN SAREA

Euskal Herri mailako egitasmoa bultzatu nahi du **OinHerrik**. Baztanen, Baxe Nafarroan, Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban proiektu hezitzaileak abian jartzen lagundu dute, eta helburua da Herri Hezitzaileen Sarea hedatuz joatea.

Herri hezitzaile izateko ezinbestean bete beharreko oinarrietako bat da hiru zutabeen arteko elkarlana; hau da, herrigintzako eragileek, hezkuntzakoek (formal zein ez formalekoek) eta administrazio publikoak (udalak) batera jardun behar dute, eraldaketa herri mailakoa izango delako, etxetik, eskolatik, udaletik herrira eta herritik etxera, eskolara eta udalera.

Herri bakoitzaren errealitatetik abiatuz, tokian tokiko prozesuak jartzen dituzte martxan, bertakoekin, bertakoentzako eta bertakoekin. **OINHERRI** ez dator inor ordezkartzera, herrian dagoena indartzera baizik.

Oñatik baditu herri hezitzaile txapelaren azpian sar-tzen diren hainbat proiektu martxan (*Hurretik, Eskola Bidea, Eskola Kirola, Txpistin, Bertsolaritza Eskoletan, Eskola Agera, Oñatiko Inauteritxikia...*) eta etorkizunean martxan jarri nahi diren proiektuetan ere bide horretan sakondu nahi du **OINHERRI** egitasmoa kide izanik. ■

## ENPRESA BERRIAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

Enplegua sustatzeko helburuarekin, enpresa berriak sortzen dituzten herritarrei zuzendutako dirulaguntzak arautzeko oinarriak eta deialdia egitea onartu zuen udalbatzak martxo osoko bilkuran.

Dirulaguntzak eskuratu ahal izateko baldintzak hauek dira: **a)** Enpresa jarduera berria alta ematen den momentuan sustatzaileak Oñatin erroldatuta egotea, gutxienez sei hilabeteko antzintasunarekin; **b)** Sortzen den enpresa berriak Oñatin izan behar du egoitza soziala eta fiskala, baita lantokia ere; **c)** Enpresa jarduera berriaren antzintasuna gehienez urte batekoa izatea.

Laguntza mota eta zenbatekoari dagokionez, enpresaren sustatzaileak 1.500 euroko laguntza jasoko du sorturiko lanpostu bakoitzeko, eta 3.000 eurokoa, lehen sektoreko aktibitatea bada. Informazio gehiago: 943 003 198 / [enplegu@onati.eus](mailto:enplegu@onati.eus).

## Udalekuetan izena emateko epea apirilaren 3an itxiko da

Udaleko Irekietako eta Arte Udalekuetako izen-emate epea apirilaren 3an itxiko da. Izen-emate orria [www.onati.eus](http://www.onati.eus) webgunean zintzilikatu da eta, beraz, on line egin daiteke, haurren matrikularen ordainagiria atxikiz. Zalantzaren bat edo zailtasunak dituzten gurasoek 688 634 340 telefono zenbakira deitu dezakete arratsaldez (16:00-19:00).

## Kontribuzioaren zerga atzeratu egin du udalak

Maiatzaren 15etik ekainaren 30era bitartean kobratzekoa zen, baina bi hilabete eta erdiz atzeratzea erabaki da, eta abuztuaren 1etik irailaren 15era bitartean izango da aurten. Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren kobrantza ere irailaren 15era arte luzatu da.

## Araozko ostatu 2. faseko lanak esleitu ditu udalak

Araozko eskola ostatu bilakatzeko 2. faseko lanak Aretxabaletako Eco-Silma S.L. eraikuntza enpresari esleitu dizkio udalak 265.833 eurotan (BEZ kanpo). Bi enpresa aurkeztu dira lizitaziora, eta Eco Silma-rena izan da puntuazio altuena lortu duena. Apirilaren 3an sinatuko da kontratua, eta bost hilabeteko epea aurreikusten da lanak burutzeko.

## Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina

Udaleko Euskara zerbitzuak errenta aitortpena euskaraz egitea sustatuko du aurten ere. Etxez etxe banatuko den eskuorri batean azalduko ditu errenta euskaraz egiteko dauden moduak, eta hiztegi txiki bat. Halako kanpainak egiten hasi zenetik (2008) %8tik %31ra igo da errenta aitortpena euskaraz egiten dutenen kopurua.



Mindful education

Kontzientzia osoz.  
Arreta osoz.

Batxilergoa,  
**ELKAR HEZIN**

Matrikula epea: **MAIATZAK 4-14**

Informazioa: 943 71 82 72  
[idoskaritza@elkarhezi.eus](mailto:idoskaritza@elkarhezi.eus) / [www.elkarhezi.eus](http://www.elkarhezi.eus)



# Abeltzaintza ekologikoan trebatzeko ikastaroa egingo da Zubillagan, maiatzetik aurrera

- ▶ Langabetuei zuzendutako ikastaroa da.
- ▶ Abeltzaintza ustiategietako azienda eta makineria erabiltzen ikasiko dute, kalitate eta jasagarritasun irizpideak aplikatuz.

Eusko Jaurlaritzak, Lanbidek eta HAZI Fundazioak antolatuta, Oñatiko udalaren eta Gomiztegi Kooperatibaren laguntzarekin, 'ABELTZAINZA EKOLOGIKOA' ikastaroa egingo da Oñatin maiatzetik aurrera. Denera 290 ikastordu izango ditu, teoria eta praktika uztartuz. "Oso prestakuntza praktikoa izango da; esperientzian oinarritutako ikasketa aplikatzen dugu. Teoria azaldu ostean, ikasleek praktikaren bidez edo bisita teknikoak eginez barneratzen dituzte edukiak" azaldu digu ikastaroko arduradun Orbaiz Aretxabaletak. Azalpen teorikoak Zubillagako Olaburu zentroan emango dituzte, eta alde praktikoa lantzeko Gomiztegiko artzain eskolara igoko dira.

Lanbiden izena emanda egon behar da ikastaroan parte hartu ahal izateko. Gainera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) titulua, 2. mailako profesionaltasun ziurtagiriren bat, edo arlo bereko 1. mailako profesionaltasun ziurtagiria eduki behar da. "Hala ere, horrekin ez dugu inolaz ere interesa duen pertsona gogogabetu nahi. Betebehar horietako bat bera ere ez duten pertsonen kompetentzia azterketa bat egiten diegu, beraiek ere izan dezaten parte hartzeko aukera" azaldu digu Aretxabaletak.

## BI MODULU

Bi modulutan banatuko da ikastaroa: 1.- Ustiategi ekologikoe-tako azientaren maneiu arrazionala; 2.- Abeltzaintzako ustiategiko instalazioak, makinak eta ekipamendua. Prestakuntza bukatu ostean, ikasleek jakingo dute animaliak (ugaztunak eta hegaztiak) maneiatzen (elikadura, ugalketa, erditzea, osasun kontrola...) eta ustiategiko makinak eta instalazioak muntatzen eta mantentzen, betiere produkzio ekologikoa, kalitate kontrola eta laneko arriskuen prebentzioari dagozkion irizpideak aplikatuz.

Ikastaroa burutzen duten ikasleak besteren konturako edo norberaren ustiategian aritzeko kualifikatuta egongo dira, eta izango omen dute irteera profesionalik, Aretxabaletaren ustez. "Abeltzainek askotan esan izan digute ez dutela aurkitzen beraien enpresetan lan egiteko pertsona kualifikaturik, eta hortik abiatuta antolatu dugu prestakuntza ibilbide hau. Beraz, langabezian dagoen eta animaliekin lan egiteko prest dagoen pertsona oro animatuko nuke ikastaroa egitera".

Bi bide daude izena emateko: HAZI Fundazioaren webgunean ([www.hazi.eus](http://www.hazi.eus)) edo LANBIDErean ([www.lanbide.eus](http://www.lanbide.eus)). Apiril hasierarako aurreikusita zegoen lehen moduluen hasiera, baina egun bizi dugun egoera ikusita, apiril bukaera edo maiatzera atzeratzea erabaki dute. Informazio gehiago jaso, edo zalantzaren bat argitu nahi duenak **678 630 247** telefono zenbakira deitu dezake edo mezu bat bidali [oaretxabaleta@hazi.eus](mailto:oaretxabaleta@hazi.eus) helbidera. ■



Abeltzaintzako 1. mailako ikastaroan parte hartu duten ikasle batzuk



**ZURICH**

M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

**HARALD LINDER**

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



## Ingurumen Beka deitu du Udalak

► Gutxiegi erabiltzen diren edo utzita dauden nekazaritza-lurren azterketa eta ekintzarako aukerak aztertzea da helburua

► 12.000 euroko diru-kopurua du beka



**B**i urtean behin kaleratzen duen Ingurumen arloko ikerketa bekarako deialdia egin du udalak. Beka eskuratzen duenak aztertu beharreko gaia hau da: *'Nekazaritzaren zein abeltzaintzaren izaera multifuntzionala eusteko helburuarekin (lurraldea eta paisaia kudeatzea, ingurumena babestea, animalia-arraza autoktonoak gordetzea eta nekazaritza-gizarte eta -kulturari eustea) udalaren lursail patrimonialetan zein udalerrian gutxiegi erabiltzen edo utzita dauden nekazaritza-lurren azterketa eta ekintzetarako aukerak'*.

Lana, taldeka edo bakarka egin daiteke, eta kasu guztietan egin asmo den lanaren inguruko proposamen-txostena aurkeztu behar da (15 orrialde gehienez). Bertan azalduko dira, besteak beste, ikerketaren esparrua, aurrekariak eta gaiaren egungo egoera, ikertzailearen edo taldearen esperientzia, helburua, lan metodologia, kronograma eta gaiaren interesa. Eskatzaileen espediente akademikoa eta curriculumarekin ere atxiki beharko dira. Beka jaso ahal izateko, ezinbestekoa da gaiarekin lotura duten ikasketak edukitzea (diplomatura edo pareko tituluaren jabe izatea). Taldeen kasuan, kideen erdiek, gutxienez, egiaztatu beharko dute formazio maila hori. Euskarari dagokionez, taldeko kide guztiak aurkeztu behar dute EGA agiria edo baliokidea.

### EPEAK

Deialdian bi hilabeteko epea finkatzen da proposamenak aurkezteko, baina bizi dugun alarma egoerak administrazioarekiko tramitazioak eten dituzenez, egoera normaltzen denean hasiko da epe hori zenbatzen. Bien bitartean, interesa duten ikertzaileak has daitezke beraien proposamenak aurkezten edo prestatzen. Udalaren webgunean kontsulta daitezke beka deialdiaren oinarri arautzaileak.

Ingurumen Bekak 12.000 euroko diru-kopurua du, eta hiru zatitan ordainduko da; %30a ebazpena hartutakoan, %40a, hamabi hilabetera, eta gainontzeko %30a ikerketa lana entregatzerakoan. 2021. urte amaiera arteko epea dago lana burutzeko. Udalaren Ingurumen saileko teknikariak egingo du ikerketaren jarraipena. Ikerketa hasi eta 12 hilabetera memoria txosten bat aurkeztu beharko da, ordura arte egindako lana azalduz.

2015/16 deialdian Oñatiko narrasti eta anfibioen inguruko ikerkeak egin zen Ingurumen Bekaren bidez; 2017/18ko deialdia (*Energia berriztagarriak*) hutsik geratu zen, jasotako proposamenek ez zutelako gutxienezko puntuazioa lortu. Beraz, honakoa hirugarren deialdia da. ■

## Bezero eta kontsumitzaileek kalitatezko haragia ziurtatuta dutela adierazi du Zubillagako hiltegiak



Prentsa ohar bidez jakinarazi du Zubillagako hiltegiak lanean jarraitzen dutela, garbitasun eta segurtasun neurri zorrotzak hartuta, hornitzaile, bezero eta elikadura katea osatzen duten gainontzeko agenteekin duten konpromiso sendoa betetzeko.

Koronabirusaren gaitzak eragindako krisialdiaren aurrean lehen sektorearen bideragarritasuna bermatzea ezinbestekotzat jotzen dute hiltegiak arduradunek, eta, zentzu horretan, tokian tokiko komertzio eta produktore txikien laguntzaile izan nahi dute, gizarteari kalitatezko produktuak eskainiz.

## Auzokonpost prozesua hobetzeko azterlana

Foru Aldundiak ingurumeneko hobekuntza sustatzeko ematen dituen dirulaguntzen deialdira aurkeztea erabaki du udalak, auzokonpostaren kudeaketa hobetzeko helburuarekin, eta horretarako txosten teknikoak enkar-gatu dio Luar enpresari.

**HORAZIO ARGARATE** / Parrokoa

# Arlo sozialean behintzat 'dabilen herria' leloa benetakoa da Oñatin



**S**ei hilabete bete dira Horazio Argaratek (Eibar, 1966) Oñatiko parroko kargua hartu zuenetik. Gurean izan duen harreraz, Oñatin aurkitu duen kristau giroaz, eta etorkizuneko proiektuez hitz egin dugu berarekin.

**Oñatin eman zenuen aurreneko mezan "bertigo" pittin bat sentitzen zenuela esan zenuen. Zer moduz zaude sei hilabeteren ostean? Harrera ona izan al duzu?**

Hona iritsi aurretik hartu-eman gutxi neukan Oñatirekin. Askotan entzuna neukan Oñati berezia dela, eta horrek nolabaiteko kezka sortzen dizu, zer izango ote den... Baina, ez, moldaketa erraza izan da; herritarrek, oro har, oso ondo hartu naute, eta uste dut hemengo neurria emateko moduan nagoela.

**Aurretik, Arrasaten egon zinen hamar urtez. Desberdina al da Oñati?**

Biztanleen erdiak ditu Oñatik, eta horrek asko baldintzatzen du; hemengo hartu-eman sozialak oso trinkoak dira, herritar gehienek ezagutzen dute elkar, eta harremanak askoz sendoagoak dira.

**Nola aurkitu duzu Oñatiko kristau elkartea?**

Oso antolatuta, bere neurrian. Oñati ez da parrokia bakarrik; hemen komentu eta fraide-etxe ugari dago, eta errealitatea oso anitza da. Atentzioa eman dit, onerako, sekular asko daudela inplikaturata parrokiako bizitzan, maila handikoak gainera, bai formazio aldetik eta bai testigantza mailan ere.



*Zure etxebizitzaren hobetzeko prest*

*Amaia Igartua*  
**ARKITEKTURA ESTUDIOA**

-Baserrien eta eraikinen zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE)  
-Ilogailu eta 0 kotara proiektuak -Fatxadak isolatzeko proiektuak

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

**JUANJE MARGOAK**

**T. 627 818 247**

### Hobetu beharrekorik?

Hemengo kristau komunitateak oso sakabanatuta bizi gara, eta horrek dakar, adibidez, igandero ia 17 meza egotea Oñatin. Au-  
zoak ere asko dira, eta, oraingoz, atendituta daude, baina, denborarekin, horrek bere neurrira etorri beharko du.

### Fedea bizirik mantentzea, kristau elkarte osoaren ardura dela esan zenuen zure aurreneko mezan. Nola ikusten duzu herria sinesmen aldetik?

Bai, hori ez da abadearen kontua bakarrik; fedea mantentzeko, nork bere baitan, familietan eta elkarte mailan egin behar da lan. Baina, berriro diotsut, Oñatin, parroquia mailan eta bestelako zentroetan (katekesia, Caritas, Espetxe pastoraltza, Gaixoak, Misoak...) 100dik gora pastoralgilek laguntzen dute. Jende talde handia dago, eta denon erronka da horri eustea.

Ez dago fedea neurtzen duen makinarik eta, beraz, zaila da galderari erantzutea. Kanpora begira islatzen denari erreparatuz, erlijio ohiturak (Bederatziurrenak, urteurren mezak...) indar handiz mantentzen dira, eta, oro har, esango nuke, nahiz eta, agian, elizara etorri ez, jende askorengan bizirik dagoela mundu ikuskera kristaua; ez dute etena egin beraien barrenean, halako fede puntu bat badagoela iruditzen zait. Hemen, apaiza onartua eta estimatua da, eta hori ez da toki guztietan gertatzen.

### Daturik ba al duzu?

Iaz (2019) 32 ume bataiatu ziren, 50 inguruk egin zuten Jaunartzea, eta elizatik ezkonduetako bikoteak 7-8 izan ziren, Arantzazukoak barne.

### Nola eramaten da gizartearen zati handi bat Elizatik aldentuta dagoela ikustea? Errudun sentitzen al zara?

Ez. Dagoeneko irentsita daukagu hori. Barne gogoeta egin behar dugu, hau dena nondik datorren aztertzeke eta, ahal dela, gainditzeko, baina pazientzia handiz. Garai ezberdinak gertatzen dira; orain dela hamarkada gutxi arte

normala iruditzen zitzaiguna ere, agian ez zen hain normala; gizartea anitza izan behar da, baita erlijio mailan ere. Etorkezunean fede kontuak gehiago izango dira hautatuak, eta ez derrigortuak.

Ikusten dudana arazoa da, be-  
launaldi etena gertatzen ari dela, eta hori ere ez da normaltasuna. Muturreko egoerak ez dira onak, ez alde batera, ez bestera.



### KRISTAU KOMUNITATEA

Kristau elkarteak oso sakabanatuta daude Oñatin, eta horrek dakar, adibidez, domekero 17 meza egotea. Horrek bere neurrira etorri behar du denborarekin

### FEDEA BERRESKURATU

Jendeak sentitu behar du Jesukristo eta ebanjelioa garrantzitsuak eta onerako direla beraien bizitzan. Hori lortzen badugu, urrats sendoa emango dugu.

### Elizak bizi duen krisi egoerari buelta emateko, aurrena sinesgarritasuna berreskuratu behar duela esan izan duzu.

Bai, batzuk ibiliko dira arrazoi teorikoak aztertzen, baina ez dut uste elizatik aldentu diren gehienak ideologiagatik aldentu direnik, beharrezkoa ikusten ez dutelako baizik. Beraz, hasi behar dugu, nire ustez, ebanjelioaren eta Jesukristoren testigantza eskaintzetik berriro ere, ez bakarrik hitzez, baizik eta ekintzez; jendeak sentitu behar du bere bizitzarako garrantzitsua eta ona izan

## Aste Santuko ospakizunik gabe aurten

Koronabirusak Elizaren jarduna ere baldintzatu du. Jarduera ia guztiak daude geldirik: katekesia, mezak, hileta elizkizunak... "Izurritealdi hau amaitzen denean, egun hauetan hil diren guztien aldeko elizkizun nagusia ospatuko dugu" azaldu digu Argaratek. "Bulegoko lanean jarraitzen dugu, eta norbaitek Caritasen laguntza edo abadea beharko balu, telefonoz deitzea dauka, eta joango gara bere etxera sakramentuak ematera edo behar denera".

Bitarteko askorik ez duten familien gertuko jarraipena egiten ari dira parrokiatik, Caritasen bitartez. "Familia pobreetako ume askok eskoletako jangeletan bazkaltzen dute, eta orain denak etxean daudenez, hainbat familiatako egoera zaildu egin da. Eskolako lanekin jarraitu ahal izateko ordenagailurik eta internetik ere ez dute zenbait etxetan, eta ari gara, nola edo hala, behar horiei erantzuten Caritasen bidez".

Egun bizi dugun osasun larrialdi egoera apirilaren 11ra arte luzatu dutela kontuan hartuz, aurten ezin izango da Aste Santuko elizkizunik ospatu. "Hala da, bai. Ez dut uste mendeetan halakorik sekula gertatu denik, baina, dena den, gogoratu behar da Aste Santuko elizkizunak ez direla derrigorrezkoak, kristau urteko handienak badira ere" azaldu digu parrokoak. Izurritealdi hau gainditu bitartean, irrati edo telebista bidez entzun ahal izango dute meza eliztarrek. ■

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

daitekeela fedea. Hori lortzen badugu, urrats sendoa emango dugu.


**Arrasaten nabarmendu zinen, besteak beste, pobreen alde egindako lanagatik: jantokia, logelak, lanerako prestakuntza zentroa Caritasekin batera... Oñatin antzeko ekimenik abian jartzeko asmorik bai?**

Errealitatea ezagutzen ari naiz oraindik, eta, zorionez, esan behar dut, udal, herri nahiz eliza mailan antolamendu handia dagoela sufritzen ari direnei laguntzeko. Elizaren inguruan, adibidez, Caritas eta Espetxe nahiz Gaixoen pastoraltzak ditugu, Bidebarrerekin eta Elkarzabalekin ere kolaboratzen dugu; herri mailan Hotz eta Hermansoloña daude, eta udaleko Gizarte Zerbitzuetan ere lan handia egiten dute. 'Dabilen herria' baldin bada herri honen leloa edo slogan-a, benetan badabilela esango nuke.

Arrasaten beharra zegoelako jarri genituen martxan ekimen horiek, baina Oñatin, berriro diot, jende gehiena ondo artatuta dagoela uste dut. Dena den, beti sortzen dira behar berriak, eta ni adi egongo naiz.

**Hasi besterik ez da egin zure ibilbidea Oñatin, baina zertan utzi nahi zenuke arrastoa?**

Zaila da horri erantzutea. Gu ez gara horri begira ibiltzen. Nire buruari jarri diodan lehen helburua da, bereziki Elizako taldeetan dabilzan pertsoneri gertutasuna erakustea, laguntzea eta, ahal dela, harreman sendoa lortzea.



Horazio Argarate parrokiako bulegoan lanean.

**Luze gabe, apaiz barik geratuko dira herri asko. Prest al daude Eliza eta gizartea errealitate horretarako?**

Elkarteak hartu beharko du bere gain ardura gehiago. Gure artean berria da hori, baina mundu mailan hala funtzionatzen dute herri askotan. Kontua da, apaizak bakarrik ez, parrokiaren inguruan dabilzan sekular konprometituek ere adinean aurrera doazela, gehienak.

**Eraikin erlijiosoa ere hutsik geratzen joango dira, eta hori ere arazo bilakatuko da.**

Arazoa bada, dagoeneko. Oñatin bertan eraikin erraldoi asko daude, eta horien mantenua ezin da kristau elkartearen gainean utzi. Beraz, erabaki egin beharko da zer egin ondare horrekin eta zein erabilera ematen zaion. Oñatin, adibidez, akordio batzuk lotu ditugu San Lorentzo eta Torreauzoko ermiten erabilera eta mantenuari dagokionean



**laz 32 ume bataiatu ziren Oñatin, 50 bat gaztetxok egin zuten Jaunartzea, eta elizan ezkonduetako bikoteak 7-8 izan ziren, Arantzazukoak barne**

**Des-inmatrikulazio prozesu bat eman beharko da, agian.**

Oraingoz ez gara horretara iritsi. Estatu mailako akordio bat izan beharko da, nire ustez, jabegoak norenak diren finkatzea, eta horren arabera zein diren bakoitzaren ardura eta betebeharrak.

**Herritarrentzako mezurik?**

Oñatiar gehienak harro daude bere herriarekin eta bertan dauden eraikin historiko-artistiko ederrekin; gure arbasoek utzitako ondarearekin. Baina nik aipatu nahi nuke, eraikin horien bitartez balio batzuk ere transmititu izan direla mendeetan zehar, bizitzarako baliagarriak izan direnak, eta etorkizunerako ere lagungarriak izan daitezkeenak. Beraz, animatuko nuke jendea horretan sakontzera; ez ditugu harriak bakarrik gorde behar, horien atzean dauden sinesmen eta baloreetan ere sakondu behar genuke, eta hala egiten badugu, ziurrenera hor ere beste altxor bat aurkituko dugu. ■



**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia



**PAKITA**  
Altzariak



Berezao Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

# IRAZOLA

## Okindegia



Ostiral, asteburu  
eta jai egunetan  
baserrniko agia,  
egurrezko labea egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



Gure ekintzen berri emango duen atala...

### >> UDALEKU IREKIEN ETA ARTE UDALEKUEEN IZEN-EMATEAK

Bizitzen ari garen egoera berezi honetan, Udaleku irekietako eta Arte Udalekuetako izen emate epea luzatzea erabaki du Oñatiko Udalak. Zehatz esanda, apirilaren 3ra bitartean egongo da izena emateko aukera, [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) helbidean.

Horrez gain, telefono zenbaki bat jarriko da herritarren eskura, udalekuei lotutako zalantzak argitzeko edota horietan izena emateko -apirilaren 3ra arte egongo da martxan-. Bada, gura duenak, 688 63 43 40 telefono zenbakiaren bestaldean aurkituko gaitu, 16:00etatik 19:00etara bitartean.

### >> ARTE UDALEKU ETA UDALEKU IREKIEKOTAKO BEGIRALEEN IZEN EMATEAK

Koronabirusak sortutako alarma egoera berezia dela eta, ezin izan dira izenemate hauek bermatu. Gauzak horrela, alarma egoera hau bukatzen denean adieraziko dira gai honekin lotutako argibideak.

### >> GAZTE ELKARTE ETA SORMEN DIRULAGUNTZAK 2020

2020. urtean Haur eta Gazteria Departamenduak kudeatzen dituen programaren kontura emango diren diru-laguntzen deialdia 2020ko martxoaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren. Gauzak horrela maiatzaren 4rarte dago eskatzeko epea. Aipatutako Koronabirusaren ondorioz HAZA itxita dago, eta ez da posible eskaera aurrez aurre egitea. Hori dela eta, egoera berezi honetatik irteten garenean diru-laguntza lerro honen eskaera epeak berriro zehaztuko dira.

### >> GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO DIRU-LAGUNTZAK 2020

Diru-laguntza lerro honen azken ukituak ari gara bukatzen, aurrerago azalduko ditugun aldaketa txiki batzuk txertatzen ari gara. Diru-laguntza hau lehenbailehen argitaratzea espero dugu, eta eskaerak egiteko moduan egongo dira.

### >> GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO DIRU-LAGUNTZEN DATUAK 2019

2019an ere, Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak, Oñatiko gazteen emantzipazioa lortzeari zuzendutako diru laguntza lerroa martxan izan du. Laguntza hauen xedea da: Oñatiko udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten 18 eta 30 urte bitarteko gazteei, etxebizitzaren alokairu-gastuen zati bat ordaintzea. Horrekin, alde batetik, Oñatiko Udalak herriko gazteen emantzipazioan laguntzea du helburu. Baina beste alde batetik, alokairuko etxebizitzaren erabiltzaile nagusi diren neurrian, gazteek pairatzen duten alokairu-prezioetan ere eragin nahi du, egun existitzen diren alokairu altu horiek jaisteko helburuarekin.

Helburu horiek kontuan hartuta, bosgarren urtez, emantzipaziorako diru-laguntzak banatu ditu Oñatiko Udalak. Hori dela eta, une hau momentu egokia da diru-laguntzen eta bilakaeraren balorazioa egiteko.



Aipatzekoa da 2019an eskaera kopurua egonkortu egin dela, lehenengo aldiz ez da igo, 34 eskaera izan ditugu, 2018an berriz 36 eskaera izan ziren. Banatutako diru kopurua ordea iazkoa baino 2.000 euro handiagoa da, aurten 53.207,00 eurokoa hain zuzen ere. Gauzak horrela, badirudi diru-laguntza hauek gure herrian egonkortzen ari direla.

Argi dago ere Oñatiko gazteen artean diru laguntza honek izan duen eragina nabarmena izan dela. Gazteak emantzipaziora animatzen ari dira, argi eta garbi, eta gainera gero eta baldintza hobean (Aurten eskaeren %95a bizikide bakarreko edo bi bizikideko alokairuentzat da, eta horrek egonkortasun maila bat lortu dela adierazten digulakoan gaude).

Horrekin batera, bada beste datu aipagarri bat, berriro ere nesken eskaera-kopuruak gora egin du. Zalantza barik neska gazteen kolektiboan ere positiboki eragiten ari garelakoan gaude.

Eskatzaileen perfilaren inguruan, adina da nabarmentzeko beste datu bat, eskatzaileen %92ak 25 urte edo gehiago duela. Eta datu hori logikoa bada ere, adin horren aurretik estabilitatea lortzeko zailtasunak daudela ere adierazten digu.

Gauzak horrela, laburbilduz, aurten ere Oñatiko Udalaren izenean egiten dugun irakurketa oso positiboa da. Izan ere, gazteengandik jasotako eskaera bat asetzen ari garelako, eta Oñatiko gazteen ongizatean zuzen eragiten ari gara uste dugulako.





Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.:943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Azaleko argazkia: Natxo Santos



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Aratz Losada

### Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

### Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

### Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## Ez, justifikatu gabeko pertsonen eta merkantzien joan-etorriari

**TXANDAK, Euskaldendak (ArabaDendak, BizkaiDendak eta Dendartean) taldearen komunikatuarekin bat egiten du**

**G**aur egun dagoen krisi sanitario eta ekonomiko-sozialaren gaurrean, eta lehen premiazkoak ez diren produktuen online salmentaren bidez sortutako salgaien joan-etorria ikusita, honako hau eskatzen dugu:

Espainiako Gobernuak 463/2020 Errege Dekretua alda dezala, alferrikako arrisku egoerak saihesteko.

Eusko Jaurlaritzari, Merkataritza eta Osasun sailei zehazki, Eusko Legebiltzarrari, Foru Aldundiei, alderdi politiko eta sindikatu guztiei, merkatarien elkarte guztiei, gizarterakunde guztiei eta, oro har, herritarrei, proposamen honen alde egin dezaten, premiazkoak ez diren produktuen online salmenta gelditzeko helburuarekin.

Ez jatorri eta manipulazio zehaztugabeko paketeen joan-etorriari!!

Izan gaitezen kontsekuenteak eta gelditu dezagun astakeria sanitario eta sozial hau!

Ez, justifikaziorik gabeko pertsonen eta salgaien joan-etorriari! Ez, jatorri eta manipulazio zehaztugabeko paketeen joan-etorriari!!

Ez, justifikaziorik gabeko pertsonen zirkulazioari gure kaleetatik paketeak eramaten, gure txirrinak jotzen, gure atarrietako ateak jotzen eta irekitzen, gure eskailera eta igogailuetatik igotzen, gure solairuetako korridoreak erabiltzen eta gure bizilagunekin egoten, etxean eta lurralde osoan zehar!

Izan gaitezen kontsekuenteak eta gelditu dezagun astakeria sanitario eta sozial hau!

## APIRILEKO ODOL ATERALDIA

Ezinbestekoa den odola ateratzeko aukerak aztertu ondoren, Oñatiko odol emaileen elkarteak eta udalak adostu dute kiroldegiko pilotalekuan egitea odol ateraldia apirilaren 3an.

Dena den, garbi utzi nahi dute, deituak diren odol emaileek soilik joan behar dutela odola ematera. Kiroldegiko aldapatik igota, taberna ondoko atetik sartu beharko dute pilotalekura



**Mekanizazio zerbitzu integralak**

**Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es**



## Etxe kanpoan galtzeko beharra

📷 Koronabirus gaitzaren inguruan ere hedatu zaigu eta dagoeneko, hiru astera bidean dijoa Estatuak ezarri zuen konfinamendu egoera. Etxean egotea dagokigun momentu gogor hauetan, inoiz baino behar gehiago sentitzen dugu etxe kanpokaldeko paraje amaigabeetan galtzeko beharra. Oñatin badaukagu non aukeratu!

📷 JOSU ALTZELAI

## OHAR ETA DEIALDIAK

### ► UDAL LIBURUTEGIKO OHARRA

Liburutegia itxita dago. Maileguan dituzuen dokumentuak itzultzeko epea maiatzaren 4ra arte luzatu da.

### e-Liburutegia eta e-Film

Liburu elektronikoak eta online pelikulak maileguan hartu ditzakezu eLiburutegian eta eFilm-en:

- [www.eliburutegia.euskadi.eus](http://www.eliburutegia.euskadi.eus)
- <https://eliburutegia.efilm.info>

Ondorengo QR kodean dituzu liburuak deskargatzeko edo pelikulak online ikusteko argibideak



**NORK ERABIL DEZAKE?** Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean dauden biblioteketako bazkideek. Erabiltzaile edo pasahitzarekin arazoak izanez gero, udal liburutegiarekin harremanetan jarri posta elektronikoz ([liburutegia@onati.eus](mailto:liburutegia@onati.eus)) edo WhatsApppe (688 732 826).

**EZ BALDIN BAZARA BAZKIDE,** alta eman dezakezu helbide honetara idatziz: [liburutegizerbitzua@euskadi.eus](mailto:liburutegizerbitzua@euskadi.eus).

e-Liburutegian maileguan har daitezkeen liburuak kopurua handitu da (4 liburutik 6ra). Neurri hori printzipioz apirilaren 16ra arte egongo da indarrean.



## Etxean kirolariekin solasean

### • INSTAGRAMEKO ELKARRIZKETA SAIO BERRIA

Konfinamendu garaian etxean igaro behar dugun ordu kopurua entretenimendu saio batekin bete asmoz, ekimen berri bat jarri du martxan Aratz Losada Pérez, Oñati Irratiko kiroletako berriemaileak.

Martxoaren 23an hasi zen eta egoera honek irauten duen bitartean herriko kirolari ezberdinak elkarrizketatzen ari da egunero bere Instagrameko perfilean ([@a3losada](https://www.instagram.com/a3losada)). Ainara Uribarri, Andoni Ugarte, Garazi Erostarbe, Gaizka Irizar, Josune Odriozola, Argider Isasti, Olatz Korkostegi, Ander Zabarte eta Maider Usandizaga izan dira orain arteko gonbidatuak.

Entretenez eta kirolariekin harremanetan jarraitzea da helburua eta badirudi, interesa piztu duela ekimenak. Batz bestea 175 pertsona elkartzeko baitira 20:05ean hasten diren zuzeneko emanaldietan.



caravanas oñate bizikleta dendaren izena eta irudia aldatu ditugu

hau da dendaren izen berria:

**Oñabike**

Facebook, Instagram icons  
Oñate 25, Oñati  
Tel.: 943 78 05 65

bisita gaitzazu!!



Martxoaren 7an Azpeitian jokatu zen Urrezko Aizkora Txapelketako finaleko irudiak (Egur Esport)

# "Lanean gogor jarraitzeko indarra eman dit txapelak"

► Zeanuritarra sortzez, Oñatin bizi da egun **Irati Astondoa**, eta berak irabazi berri du **Urrezko Aizkora Txapelketa** ► Ekainean jokatuko den Euskal Herriko txapelketa du orain begiz jota

**M**artxoaren 7an jokatu zen Urrezko Aizkora Txapelketako finala Azpeitian, eta pronostiko guztiak hautsiz, egun Oñatin bizi den Irati Astondoa (Zeanuri, 1991) jantzi zuen txapela, Nerea Sorondo faboritoari 6 segundoko aldea aterata.

## A ze emozioa, ezta?

Bai, 45 ontzako hiru enbor moztu behar genituen. Lehenengo bietan aurretik nindoan, 40 bat segundoren aldearekin, baina ni ez nintzen horretaz jabetu, hirugarren enborrari ekin arte. Eta orduan etorri ziren urduri-tasanak. Egoera berria zen ni-

retzat, txapelketa batean aurretik joatea, eta orduantxe hasi ziren gauzak okertzen. Azken enborrean batera eman genuen buelta Nereak eta biok; esatariak ere presio handia jartzen zuen, gu bion izenak behin eta berriz errepikatuz, eta, egia esan, oso itogarria izan zen amaiera; jo

**Catalana Occidente** **Mikel Egaña Urrutia**  
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea  
638 16 79 84  
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

**Almaraz**  
Inmobiliari gestioa

**Carmelo Pérez de Almaraz**

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, **dei** iezaguzu".

Tel.: 679411444  
www.almaraz.info



eta jo, herio batean. Zorionez nire alde erori zen txapela, baina berdin irabaz zezakeen berak.

### Izan ere, Nerea zen faborito argia, ezta? Zertan egon zen gakoa?

Bera zen, bai, faborito argia. Indar handia dauka Nereak eta horrelako lan motzetan oso zaila da hari irabaztea. Horregatik, ilusio handi barik joan nintzen finalera. Pentsa, finala arratsaldean zen, eta goiz partean beste erakustaldi baten aritu nintzen, Leioan.

Kontua da, inoiz baino lasaiago iritsi nintzela finalera. Fisikoki ondo nengoen eta topera irtetea erabaki nuen, ez neukalako galtzeko ezer, eta ondo atera zen.

### Zer balio du txapel honek zuretzat?

Handia. Urte askotako arantza-txo bat ateratzeko balio izan dit. Iaz ere segundo gutxiatik galdu nuen Euskal Herriko txapelketa, eta ia ezinezkoa ikusten nuen lan motzetan Nereari irabaztea. Izugarria izan da, eta lanean gogor jarraitzeko gogoia eta indarra ekarri dit txapel honek.

### Noiz hasi zinen herri kirole-tan?

Hamabost urterekin. Nire aita 'Pabi' Astondoa segan aritzen zen, eta txikitatik oso hurbiletik bizi izan dut herri kirolen mundua. Hasieran trontzan eta segan ibili nintzen, baina gaur egun aizkoran zentratuta nago.

### Oker ez banago, apustu baten ondoren hasi zinen aizkoran, ezta?

Bai, 2015ean. Garai hartan Alazne Etxaburua eta biok ibiltzen ginen Euskal Herriko sega txapelketetan, eta apustu bat jokatzeari proposatu zidan berak. Segan eta beste lanen batean. Korrika saioa proposatu nuen nik, baina berak ezetz; biok sekula egin gabeko zerbait izan behar zuela. Eta, hala, aizkoran egitea erabaki genuen. Bi mila euro jokoan.



## HERRI KIROLAK

15 urterekin hasi nintzen herri kirole-tan. Gaur egun, txapelketak direla, erakustaldiak direla, astebururo izaten dugu saioaren bat, urte guzitan zehar.

## APUSTUA

Aurretik trontzan eta segan ibili izan naiz, baina 2015ean egindako apustu baten ondoren hasi nintzen aizkoran, eta gaur egun horretan nago zentratuta.



### Bera nagusitu zen.

45 ontzako lau enbor moztu eta ordubete osatu arte segan egin behar genuen. Dezenteko lana. Aizkora lanak aurretik amaitu nituen, baina segan buelta eman zion. Oso gaztea nintzen eta, egiari zor, ez nuen behar bezala

Trontzan eta segan ere aritu izan da Irati. Bizkaiako txapelketa izan zen trontzan, eta hamar aldiz parte hartu du Europako sega txapelketan, Euskal Herria ordezkatzuz

prestatu. Gaur balitz, ez zidan hain erraz irabaziko. Dena den, egun polita izan zen eta horri esker nago gaur hemen.

### Aizkoran zentratuta, ezta?

Bai. Beti izan dut erraztasuna kirole-tarako. Kirol askotan aritu izan naiz (palan, errugbian, segan, trontzan...) eta denetan nahiko politto, baina denborarekin konturatu naiz txapelketetan emaitzak lortu ahal izateko, pres-taketa espezifikoak egin beharra neukala. Eta, hala, iaz Iker Lopez prestatzaile fisikoarekin hasi nintzen lanean. Herriz herriko erakustaldietan bestelako lanak ere egin behar izaten ditugu tar-teka, baina txapelketei dagokie-nez, aizkoran zentratuta nago.

### Zer dira herri kirolak zuretzat?

Bizitzeko modu bat. Txapelketak direla, erakustaldiak direla, ia astebururo dugu saioaren bat, urte osoan, eta uda partean, bi edo hiru astebururo. Horri gehitzen badiozu astean zehar egin beharreko 3-4 entrenamendu saioak... Nire bizitza osoa, gaur egun, herri kirolen bueltan doa.

### Bertatik bizitzerik ba al dago?

Ez, inola ere ez. Plaza asko egi-ten ditugu urtean zehar, baina gastuak ere handiak dira: egurra, aizkorak, garraioa, gasolina... Iaz adibidez, 1.800 euro gas-tatu nituen kamioikada bat egur ekartzen. Ez gabiltza diruagatik.

### Hurrengo erronka?

Ekainean jokatu den Euskal Herriko aizkolaria txapelketa. Horixe izaten da urteko txapelketa nagusia. Horretarako prestatzea da orain erronka.

### Erdi oñatiarra zara orain. Zer moduz?

Urtebete inguru daramat Oñatin eta ondo nago, baina Zeanuri ez daukat saltzeko e! (barreak). Egia esan, gutxi ibiltzen naiz kalean; Andoniren (mutil laguna) baserri inguruan edo mendian ibiltzen gara gehiago. ■



## Rokodromoa egokituko dute Olaburun

Aloña Mendiko eskalatazailleek erabili ahal izango dute kiroldegiko berritze lanek iraun bitartean

Zubillagako Olaburu industria guneko IM-5 pabilioian egokitu duten rokodromoa erabili ahal izango dute Aloña Mendiko eskalatazailleek, Zubikoa kiroldegiko berritze lanek amaitu bitartean.

Kiroldegiko lanen ondorioz desmuntatu egin behar izan zuten gimnasioan zegoen rokodromoa, eta kontuan hartuz Zubikoako lanek luze joko dutela, eskalada taldekoek lokal baten lagapena egitea eskatu zioten udalari, eskalada praktikatzen jarraitu ahal izateko. Aukera ezberdinak aztertu eta baloratu ondoren, Olaburun (Zubillaga) hutsik dagoen IM-5 industria modulua erabiltzeko baimena ematea erabaki du udalak, Sozioekonomia sailaren oniritziarekin.

Udal Hirigintza departamentuko teknikariak eta eskalada taldeko kideek adostu dute instalazioa nola egin, eskalatazailen segurtasuna bermatzeko, eta instalazioak ahalik eta inpaktu

txikiena eragin dezan industria moduluan. Eskalada taldeak bere gain hartu du, udaleko Hirigintza sailaren ikuskapenarekin, ekipamenduaren instalazioaren eta mantenuaren ardura. Udalak bere gain hartuko ditu lokaleko argindar eta ur kontsumoaren gastuak.

### ERABILERA MUGATUA

Lokalaren erabilera ez da irekia izango; Aloña Mendiko mendi saileko eskalada taldeko kideek soilik erabili ahal izango dute (Aloña Mendik jakinaraziko du taldekideen zerrenda udal kirol zerbitzuetan). Astelehenetik igandera, jai egunak barne, 8:00etatik 21:30etara bitartean erabili ahal

izango da lokala.

Argazkian ikusten den moduan, oso aurreratuta dago rokodromoa instalatzeko lanak. Koronabirusak eten egin ditu lanak, baina laster egongo da prest kirol ekipamendu berria.

**Eskalada taldekoek hartu dute bere gain ekipamenduaren instalazio eta mantenuaren ardura. Udalak bere gain hartuko ditu lokaleko argindar eta ur kontsumoaren gastuak**

## Aloñako Igoera atzeratuta, irailera

Apirilaren 26an egitekoa zen XVI. Aloñako Igoera, atzeratzea erabaki dute antolatzaileek, COVID-19ak eragindako osasun larrialdi egoera dela eta. **Irailaren 12ra** atzeratu dute, aurtengo edizioa are bereziago eginez, larunbat arratsaldean (16:00) jokatu baita. Hurrengo egunetan emango dituzte izen-ematearen inguruko xehetasunak.

## Eskola Kirolak bere jardunari eutsiko dio

Bizi dugun egoera berezia izan arren, Oñatiko Eskola Kirolak jakinarazi du bere jardunarekin jarraituko duela, ekintza berezi eta dibertigarriak proposatuz astero. Etxean, familia giroan, aktibo mantentzea eta ondo pasatzea da helburua. [www.eskolakirola.eus](http://www.eskolakirola.eus) webgunean aurkituko duzue informazio guztia. Etxean igaro behar ditugun egun hauetarako zenbait aholku ere ematen dituzte bertan.

## Marrakzi lehiaketa antolatu du Oñatiko Mendi Martxak

Bizitzen ari garen egoera bereziki da gogorra etxeko txikiarentzat. Hori horrela, marrakzi lehiaketa bat antolatu du Oñatiko Mendi Martxak. Facebook-eko perfillean ikus daitezke oinarriak.

**TABERNA • JATETXEA**  
Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



# Prestatu zure erraldoia maiatzerako

OÑATZek sarean eskegi du erraldoia egiten ikasteko bideoa

**U**rte oparoa kolorez bustita hasi genuen, eta udaberriari ondo etorria eman genion kantuz eta dantzaz. Zoritzarrez, baina, mundu mailako pandemia honek eragin digu 50. urteurreneko martxoko ekitaldia bertan behera uztea. Eta, hori gutxi ez eta, guztiok dugun ezjakintasun berberaz gaude; izan ere, ez dakigu noiz itzuli ahal izango garen kalez kale dantzatera.

Hori guztiori aldatzerik ez dugun arren, handia izaten jarraitzen du gure dantzarako eta gizaldi erdiko urteurrena ospatzeko grinak, eta garai honetarako nahiz aurreragorako prestatu ditugun proposamenean berri ematera gatozkizue.

## ERRALDOI TAILERRA

Batetik, sare sozialen bitartez egiten ari garen proposamenez gozatzera animatzen zaituztegu. Martxoan protagonista izan behar zuten gaztetxoak gogoan hartuta, etxean buruhandi bat egin ahal izateko bideoa jarri dugu ikusgai gure sare sozialetan (*Twitter: @oinatzdantza; Facebook: oinatzdantza; Instagram: @oinatzdantzataldea.*; bertan erakusten da zein materialekin eta nola egin daitezkeen buruhandi edo erraldoiak. Animatu eta egin zuek ere, zuen gustuko bat. Ederra litzateke kalera ateratzeko garaian horiek guztiak kalez kale ikustea eta herrian horren garrantzitsuak ditugun kale bazter guztietako jaiak girotu eta koloreztatzea.

Bide batez, 50. urteurrenaren harira orain arte ospatu ditugun ekitaldien jarraipena ere egin dezakezue gure sare sozialetan, une ederrak gogora ekarri eta epe gogaikarri hau pittin bat gozatzeko

Saiatuko gara martxorako iragarrita genuen ekitaldiarentzako data berria jartzen eta gure gaztetxoekin batera egun handia ospatzen.



« Ederra litzateke kalera ateratzeko garaia iristean etxean egindako erraldoi guztiak kalez kale ikustea »

## HURRENGO EKITALDIK

Akaso atzeratu egin beharko ditugu hauek ere, baina hona hemen Oñatz dantza taldearen 50. urteurreneko hurrengo bi ekitaldiak.

Apirilaren 23rako Ramon Garcíaren bisita gidatua dugu programatuta, kultur etxean, dantzarako jantzien inguruan antolatuko duen erakusketaz gozatzeko.

Maiatza, berriz, erraldoi eta buruhandien hilabetea izango da. Etxean eskuz egindako irudien erakusketa egingo dugu hilaren 2an, eta hurrengo egunean Tolosa, Legazpi, Oñati eta Atzeko Kaleko konpartsen kalejira zoragarria izango dugu, dultzaina doinuek girotuta.

Esan bezala, beharbada atzeratu egin beharko ditugu ekitaldi hauek ere, baina ipiniko ditugu data berriak hauendako ere. Kalera atera orduko jakinaraziko ditugu. Beraz, animo, eta dantzatu ezazue etxean erritmoa galdu barik.

Besarkada handi bana.

*Iñigo Murgiondo Agirre (Oñatz-50 Komunikazio taldea)*

## ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK

LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK

Aran  
Hernández

Zure ETXEA eguneratu gubeneneko inbertsio bat erabiliz bere salmenta edota alokairua eratzeko

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com



# "Emakume konformaezina naiz"

**HORTENSIA  
ALCALÁ GARCÍA**

► 70 urteak beteta, bi liburu argitaratu ditu Hortensia Alcalak, eta hirugarrena ere bidean du.

► Narrazio motzak, poemak, oroitzapenak eta gogoetak uztartzen ditu bere lanetan.

9-10 urterekin eskolara joateari utzi behar izan zion, gurasoei lagundu eta anai-arreba txikiak zaindu behar zituelako. Gero, jantzigintza ikasketak amaitu eta Balenciagaren tailerretik brodatzera deitu ziotenean ere, txorakeriak alde batera uzteko esan zioten, bere pila fabrikako soldata beharrezkoa zela etxean.

Horregatik, beharbada, laneko erretiroa hartzean 'matxinatu' egin zen Hortensia Alcalá García (Portaje, Cáceres, 1946); ordura arte egindakoarekin konforme ez, eta bere buruarengan gehiago pentsatzen hasi zen, bere zaletasunei denbora gehiago eskainiz. Hala, etxean estudio txiki bat prestatu eta idazteari ekin zion 61 urterekin: txikitako oroitzapenak, gogoetak, istorioak, poemak...

"Beti gustatu izan zait asko

irakurtzea. Ezin izan nintzen eskolara joan, eta pena handia daukat, baina gure etxean beti egoten ziren liburuak eta oheratu aurretik aitak poemak irakurtzen zizkigun gauero" gogoratzen du Hortensiak.

## INTERNETETIK PAPERERA

Bere idatziak internetez argitaratzen hasi zen, *Unión Hispanoamericana de Escritores* bezalako webguneetan eta sare sozialetan (*facebook...*). Erretiratuentzako Espainia mailako lehiaketetan ere parte hartu zuen, eta bere lanek harrera ona zutela ikusita (Guatemalatik ere elkarrizketatu zuten), animatu egin zen eta bere lehen liburua, *La niña del columpio* (Ed. Letrame) argitaratu zuen 2018an, eta bigarrena *Galería de los secretos* (Ed. Cículo Rojo) 2019an.

"Pozgarria da liburuak argitaratuta ikustea" aitortu digu; "Egunez egun gero eta gehiago ikasten ari naiz, idatzi ahala, eta hirugarren liburua are hobea izango dela ziur nago".

## ERRELATO MOTZAK

Entzundako edo berak sortutako istorioak kontatzen ditu, neurri motzean beti ere. "Bai, errelato motzak idazten ditut. Nobela luzeak ez zaizkit gustatzen; nahiago dut narratiba poetikoa".


Poesia ere oso gustuko du Hortensiak. "Barru-barruan sentitzen dudala deskubritu dut. Nire sentimenduak adierazteko modurik onena dela konturatu naiz; bertso eta bertso artean nire arima islatzen da".

Literatur lanekin batera, bere oroitzapenak eta hausnarketa edo gogoetak tartekatzen ditu Hortensiak liburuetan. Aho biazarrik gabe idazten du gai ezberdinei buruz: matxismoaren eta genero indarkeriaren aurka, injustizia sozialen kontra, bizi gaituen 2.0 mundu zoroari buruz, politikari eta agintarien eraginkortasun ezaz, gurasoen etxean



**Bake handia  
sentitzen dut  
idazten ari  
naizen bitartean**

**Nobela luzeak  
ez zaizkit  
gustatzen.  
Nahiago dut  
narratiba  
poetikoa**



zahartzen ari diren gazteez, hirugarren adinekoen ajeez, edota Oñatira iritsi berritan ezagutu zuen ETaren indarkeriaz eta polizien torturez, besteak beste.

Egunero hartzen du idazteko tarte bat. Egunean zehar ezin badu, etxeko txikiekin egon behar duelako, adibidez, afalostean pizten du ordenagailua eta, maiz, ordu txikiak jotzen dizkiote pantaila aurrean. "Bake handia sentitzen dut idazten dudan bitartean" aitortzen du.

Sari bat baino gehiago lortu ditu erretiratuentzako literatur lehiaketa ezberdinetan. Iaz, *Círculo Rojo* argitaletxeak gonbidatuta, Bilboko Liburu Azokan egon zen, liburuak sinatzen. "Sentsazio berezia izan zen bozgorailuetatik nire izena entzutea". Gero, irailean, Euskal Idazleen Elkarteak antolatzen duen *Booktuber Uneak* izeneko jardunaldietan parte hartu zuen Hortensiak, idazle gonbidatu gisa, Bilboko Azkuna zentroan, beste hogei idazlerekin batera, eta Porter Anderson, liburuak argitaratzen aditu eta kazetari estatubatuarra bertan zela. "Jende interesgarri

**'Quise dibujar la luna' (H. Alcalá)**

Quise dibujar la luna, la noche me la ocultó.  
Quise dibujar el cielo y la nube lo cubrió,  
pensé dibujar tu aliento... y el frío lo congeló.  
Para dibujar tu rostro, me faltó la inspiración.  
...

**'AL POETA ERRANTE' (H. Alcalá)**

Andante de caminos vacíos,  
noches oscuras. Huella de pies  
descalzos, besos de amantes.  
...

asko ezagutu dut, asko ikasten ari naiz, eta horrek bultzatu nau hirugarren liburuarekin animatzera".

Pittin bat desberdina izango omen da hirugarren liburua, Hortensiak aurreratu digunez. "Gerra osteko urteetan Portajen eta Nafarroan (bertakoa da senarra) jazotako gertaera tragiko batzuen inguruan idatziko dut. Bertako herritarrei entzundako istorioak dira, benetan gertatu zirenak, eta fikzio kutsua eman diet, inor ez mintzeko". Oso aurreratuta dauka liburua, eta udazkenerako argitaratuta egoitea espero du.



Hirugarren liburu pittin bat desberdina izango da; Portajen eta Nafarroan jazotako gertaera tragiko batzuen inguruan idatziko dut

**PINTURA ETA JOSKINTZA**

Azken hiru urteotan idazketan zentratuta dabil, baina margoitzeko ere abilezia berezia du, goiko irudietan ikus daitekeen moduan. Jubilatuta ondoren hasi zen; aurrena Pake Lekun, eta gero udalak antolatzen dituen pintura tailerretan, eta margolan ederrak egitera iritsi da denbora gutxian, bistan denez. "Erretratuak marraztea gustatzen zait, baina, azkenaldian abstrakzio-rako bidea egiten ari naiz".

Joskintza da Hortensiaren beste pasioetako bat, eta pena handi bat duela aitortu digu, "Balenciagatik deitu zidatenean, ez zidatela joaten utzi. A ze pena! Parisen egongo nintzen orain!".

Hainbat urtez ogibide izan zuen joskintza, eta jublatuta ostean josteari erabat utzi zion, nekatuta zegoelako. Baina moda mundua asko gustatzen zaio, eta hirugarren liburua argitaratu ondoren denbora gehiago eskaini nahi dio joskintzari. Dagoeneko blog didaktiko bat ere sortu du (<https://hortena.blogspot.com>) josten eta brodatzen ikasi nahi duen jendeari laguntzeko. ■



(\*) Itten: arrastua, pistia

## &gt;&gt; JAKINGARRIXA

## Txarriduna eta Txarraskuena

Kale Barriko bi etxe honein esanguria aztertuko dogu gaurkuan. Tradiziñuak dixuenez, Kale Barriko 8xan —lehen (1970 ingurura arte) *Txarriduna* tabernia eta jatetxia egon zan lekuan, eta gaur egunian San Migel kooperatibia dague orubian— ei eguen Rodrigo Mercado Zuazolaren jaiotetxia. Horregatik dittu, itxuria danez, aurreko eta atzeko fatxadetan Zuazola obispuaren armarrixaren kopixak. *Txarriduna* izena jabiaren ogibidetik dator; izan be, Zaldibiatik Oñatira etorritako sukiatar bat txarri-saltzaillia edo tratantia zan, eta horregatik, bera '*txarriduna*' zalako, famelixiak jarritako jatetxiari be izen hori ifiñi otsain.

Gorago, Kale Barriko 44an, dogun beste etxia *Txarraskuena* da. Kuriosua da etxe honen izenak gordeten dauen esanguria, hori be ogibide bateri lotutakua. Aspaldiko agiri batian agerketan da: "*Casa de Txarraskuena, donada por el Señor de Lazarraga ...*". Etimologiari erreparauta, era honetan banaanduko litzake berbia: Txarri+aska=txarraska. Txarraska+guen etxia= Txarraskaguena -----Txarraskuena----- eta 'Txarrasko' (etxe horretako bizilaguna). Txarraskagillia= txarraskak egitten zittuana.



Txarriduna

Txarraskuena zaharra  
Agustin Ugarteren margolana

Honbrena eta Txarraskuena barrixa

## &gt;&gt; EUSKERAZ EGOGI:

Denporazko esaldittan sari entzuten diran bi berba aittatuko dittugu orainguan: '**puntu**', eta '**puntuko**', eta horren forma inddartua dan '**puntukotxe**'. Etsenpluetan ikusi zenbat esangura hartzen daein:


**PUNTU:**

- **Puntuan** ikusi dot. **Puntuan** aillegau da. (Orain dala gutxi).
- **Aurki puntuan**, hemen eztozue zuririk ikusiko. (Laister, denpora gutxi barru)
- Kubara **puntuan behin**, edo **puntuan-puntuan** faten da. (Sarri, askotan)
- Eguardiko ordu bittan **puntu-puntuan** urtengo dau lanetik. (Justo ordu horretan)

**PUNTUKO/TXE:** Puntuko-ren inddartua

- **Puntuko/txe** konpondu dau ordenadoriaren aberixia. (Berihala, oso denpora gutxixan)  
Berihala, oso denpora gutxira esanguriarekin:
- Aspertu egingo zan lagunakin, **puntuko/txe** agertu da eta.
- Kalera urten dau, baiña **puntuko** etorri da.
- **Puntuko/txe** ezkondu eta birkixak ekarri zittuan.
- Gaixorik eguela eta, **puntuko/txe** hil zala entzun geben.

## ANTXIÑAKO MARRAZKIXA



### Izurrite modernua

**N**ork esan hau be aillegau bihar xakunik. Izurrite, epidemia eta antzerakuak aspaldiko kontuak zirala pentsaiten zan. Gaur negungo aurrerapenekin halako gaitzendako erremedixua goizetik gabera asmau eta eskuratuko zala uste geben gehixenok. Ez ba, **kantzontzillotan harrapo gau** Txinan sortutako **koronabirusak**, eta abixada ikaragarrixan zabalketan hasi da mundu guztian. Gure artian be bai, zela gaiñera!

Baiña sasue bateko izurritiak be etziran makalak izaten. Egin daigun Oñatin izandakuen errepatotxo labur bat: eztogu **1347-1353 arteko peste baltz** bildurgarrixak hemen eraginddako heriotzen barri, baiña ixa Europa osua bereganatu eben hondamendi ha gure inguruetara be heldu zanez, ondorixo larrixak itziko zittuan, seguru asko.

Datu ugari dittugu, barriz, **1597-1600 urtietan** Euskal Herriko leku askotan nagusitu zan izurrite gogorraren gaiñian. Horretarako oso egogixa da Jose Antonio Azpiazuk 2011n kaleratu eben **Esa enfermedad negra** izeneko liburua irakurtia. Oñatiri buruzko erreferentzia pillia dakar: nabarmenketakuak dira batetik, **Berganzo** medikuaren eta **Orueta** abadiaren **jokabide zintzuak**; eta bestetik, kutsatutakuen isolamendua ziurtaitteko hartu zan **erabagi latza**: orduko **Mendiko kalia alde bixetatik itxi** eta gaixuak derrigorrian bertan sartu, handik alde egitteko iñolako aukera barik.

Azpiazuk dioskunez, izurrite horretan **Oñati** izan zan Euskal Herri osoko **tokirik zigortuena**: biztanlien hirutik bat, **1.200 pertsonatik gora, galdu eben gure herrixak** bi urtian (1597 eta 1598xan); aberatsa zan baillariak krisialdi gogorra ezagutu eben; gaiñera, **herriko jauntxua, kondia, sutan eguen** urte horreittako hamarrenak (“diezmuak”), San Migel parroixako patroiz tokaitten xakonak, bere ustez etziralako bihar beste batu. A zelakotxe lotsa bariko ipixtixa!

Gerora be etorri ziran Oñatira beste hondamendi batzuk, baiña ez XVI. gizaldixaren akabera haretako tamaiñakorik. Dana dala, aittatu biharrekuak dira, bestiak beste, **1855eko kolera morbu**a, bi gerra karlisten tartian gertatua, eta **1918ko udazkeneko gripia**, Oñatin eta Arantzazun agorraren hasieran izan ziran jai eta ospakizun jendetsuen ondoren: **162 hilddako** ekarri oskun **lehenenguak** eta **30en bat bigarrenak**. Guri orain, neurri apalaguan bada be, koronabirusa aguantattia dagokigu. Antxiñako aittajaun-amandriak zera esango leukiei: **Hau dok/don izurramena!**

Marrazkixa, egixa esan, ezta hain zaharra be. Julen Zabaletak moldau eben beste batzuekin batera J. A. Azpiazuren libururako. Mendiko kaleko konfinamendu terriblia agertu gura dau. Eskerrak Joxeantoniori eta Tomas Igartuari argibidiengatik.



# LANA 60

*years*

Innovation from nature



[www.lana.eu](http://www.lana.eu)